

Gidoiak sarean Guiones on-line

Guionistas Vascos
Euskal Gidoigileak



Lasa eta Zabala
Joanes Urkixo

Jatorrizko izenburua / Título original:
Lasa eta Zabala

Gidoi Zinematografikoa / Guión cinematográfico:
© **Joanes Urkixo**

Argitalpena PDFan / Edición en PDF:
EHGEP/APGEH

Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte Profesionala
Asociación Profesional de Guionistas de Euskal Herria
Bertendona 3 bis - 4
48008 Bilbo - T. 94 416 67 45
www.gidoi.com

MUGAK ETA BALDINTZAK

Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte profesionalak hemen erakutsitako gidoiak indarrean dagoen Jabetza Intelektualaren Legeak babestuta daudela ohartarazten du.

Debekatuta geratzen da gidoi hauen edozein erabilera, dela komertziala edo ez, edozein hizkuntzataraz itzultzea edota banatzea, komunikazio publikoa, publikoaren eskura jartzea, edozein motako eraldaketa, egokitzea, erabilera edota erreproduktzio osoa eta partziala, edozein baliabide edo prozeduraren bidez, iturria eta gidoien Egilea aipatzen badira ere, horretarako Egilearen alde zehatzeko baimen zehatza eta idatzizkoa eduki behar izango baita.

TÉRMINOS Y CONDICIONES

La Asociación Profesional de Guionistas de Euskal Herria advierte que los guiones aquí expuestos están protegidos por la vigente Ley de Propiedad Intelectual.

Quedan prohibidos cualquier uso comercial o no, traducción a cualquier idioma y/o distribución, comunicación pública, puesta a disposición al público, transformación de cualquier tipo, adaptación, utilización y/o reproducción total o parcial de estos guiones, por cualquier medio o procedimiento, incluso citando la fuente o el Autor de los guiones, pues para ello se deberá contar con la autorización previa, expresa y por escrito del Autor.

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES

Guionistas Vascos
Euskal Gidoigileak



20
URTE-AÑOS



fundación  fundazioa

 **sgae**

LASA ETA ZABALA

Joanes Urkixo

7ª versión
Diciembre 2013

1

EXT. FOYA DE COVES. BUSOT, ALACANT. GAUA

Mendi-bide batean zehar bi auto triki-traka datoz. R12 bat eta Talbot Horizon bat dira. Fokuen argitara ikusten dugun apurragatik, ingurune lehor eta harritsu baten gaudela dirudi. Bat-batean, aurrerago ez oso urrun, beste foku pare bat pizten dira eta seinaleka hasi, bat, bi, hiru aldiz.

Bi auto etorri berriak bestearen parean gelditzen dira. 80ko hamarkadako modelo bat da hau ere. Ateek danba egiten dute, bota militarrek kraska egiten dute harri koxkor lehorrak zapaltzean. Zain egon direnek eta heldu berriek bostekoak ematen dizkiote elkarri, gutxienez 6 lagun dira. Maletategi bat irekitzen da. Barruan gazte bat dago, kiribilduta, ahoan mozala jarrita eta eskuak bilurrez lotuta dauzkala. Pare bi besok altxa eta kanpora ateratzen dute, hitzik gabe. Gaztea, zorabiatuta, uzkurdu eta dardarka hasten da. JOXI Zabala da (21 urte). Esku batek besotik oratu eta ibiltzera behartzen du, tiraka eta estropezuka. Norbaitek beste gazte bat darama bere parera, bera bezala lotuta dagoen bat. JOXEAN Lasa da (20 urte). Argi zurbil bat nabarmentzen da gau ilunean, aldapa batean gorantz, eta bi gazteak harantz bultzatzen dituzte euren zaindarien. Atzerago, norbaitek maletategiko atea ixten du kolpez.

DANBADAREKIN URTU BELTZERA

TITULUA

Pantaila beltzaren gainean: **LASA ETA ZABALA**

2

EXT. DONIBANE LOHIZUNE. TXAPELAREN ETXEA. EGUNA

Etxe baten aurrean gama merkeko bi auto (R4 da bietako bat) aparkatuta daude, baita furgoneta bat ere ilara berean. Honen atzeko atea irekita dago eta lau gizon gazte handik tramankuluak ateratzen ari dira. Pantailan, gain-inpresioz:

Donibane Lohizune, 1983ko Urriaren 15a

Gizonetako bi, TXAPELA -27 urte- eta ANDONI -38-, koltxoi bat eramaten ari dira etxe barrura, beste biak, JOXI eta JOXEAN, furgonetatik armairu bat ateratzen dabiltzan bitartean, elkarri oharrak ematearekin batera.

Beste biak itzultzen dira, atzetik IZASKUN, Txapelaren bikotea, datorrela, 4 urteko neskatila bat ekarriz.

Sekuentzia honetan zehar, KREDITU-TITULUAK hasiko dira.

TXAPELA

Beno, mutilok, eskerrik asko laguntzagatik.

ANDONI

Ez horregatik, motel. Baina afari hori ez diagu barkatzen, e?

TXAPELA

Bai horixe, etxea txukun ipini eta gero afari ederra prestatuko deusuegu.

IZASKUN

Jakina, zuk gonbidatu eta nik prestatu, betiko moduan.

Denek barre egiten dute eta txantxak trukatu. Txapelak txamarratik puru bat aterata, Joxiri eskaintzen dio.

TXAPELA

Eta errezale amorratu honentzako, aperitiboa.

JOXI

(PURUA AZTERTUZ, MIRETSITA)

Hara Txapela, milesker, Partagas!
(USAINKA)

Eta onenetakoa gainera. A ze detailea, esker mila!

Txamarra barruko patrikan gordetzen du. Joxeanek atzamar batez eskumuturra jotzen du, ordua gogorarazteko keinuaz.

JOXEAN

E, Andoni, goazemak, hi, Joxi eta biok geratuta gaudek eta.

TXAPELA

Bai, eta neuk be furgoneta itzuli behar dot.

Beste anabasa tarte bat sortzen da elkar agurtzean. Furgonetara hurbiltzen direnean, Txapelak gidariaren atea irekitzen du eta besteengana itzultzen da.

TXAPELA (CONT'D)

Aizue, mesedez, gogoratu ez esateko inori be non bizi naizen orain, aditu? Zenbat eta gitxiagok jakin, hainbat be hobe.

JOXI

Hago lasai, gure aldetik behintzat inork ez dik jakingo.

Txapelak irribarre batez eskertzen die eta furgonetara igotzen da. Beste hirurak aurrerago dagoen R4 autorantz doaz.

3

EXT/INT. MUNTAIA: BAIONAKO INGURUNEA. EGUNA

Plano ezberdinetan, hirurak autoaren barruan ikusten ditugu, berriketan eta txantxetan, Baionarantz abiatzen eta herrigunera sartzen diren ahala. **KREDITU-TITULUEK jarraitzen dute.**

4 INT/EXT. AUTOA/BAIONA. TONNELIERS KALEA. GAUA

Autoa Tonneliers kaleko aparkalekura heldu da eta erraz aparkatu du. Barruan, Andonik amatatu eta giltza ateratzen du. **Jarraitzen dute KREDITU-TITULUEK.**

JOXEAN

Hi, Andoni, zera... bihar
Arrangoitzeko festa dek...

ANDONI

A, bai, ikastolena. Eta? Joateko
asmoa al duzue?

JOXI

Asmoa bai. Joateko modua edukiz
gero, noski.

Elkarri begiratzen diote Joxik eta Joxeanek irribarreka begiratu ere. Andoni segidan konturatu da.

ANDONI

A, ez! Ezagutzen ditut irribarre
horiek. Joan autobusez, joder!

JOXI

Azkena itzultzeko goizegi dek, hi.
Autoz joan beharko diagu.

Erantzun beharrean, Andoni atea ireki eta irten egiten da. Gazteek elkarri begiratzen diote hura ezezkotzat hartuz, eta irten egiten dira. Andoni espaloian gelditu da, beste biak parera heltzearen zain. **TITULU-KREDITUEK jarraitzen dute.**

JOXEAN

Andoni, benga, gizona...
(JOXIRI)
Autorik gabe geratu gaituk, hi.

Begira geratzen zaie eta hasperen egiten du. Haserretzen ahaleginduta ere ezin du eta, azkenean, eskuan daraman giltza Joxiri jaurtikitzen dio.

ANDONI

Zuek biok bokazioa erratu duzue,
apaiz sartu beharko zenuten, joder,
gauzak eskatzen kristoren estiloa
daukazue eta.

JOXEAN

Eta hi aiton ipurterre hutsa haiz,
Andoni. Hator gurekin ba, trago
batzuk on egingo ditek eta.

ANDONI

Hi, trago gutxiago eta buru
gehiago, entzun? Aurrekoan kontrol
batean gelditu zintuzteten.

(MORE)

ANDONI (CONT'D)

Gogora ezazue oraindik errefuxiatu estatuturik gabe zaudetela.

JOXEAN

Aizak, ez gaituk inongo txoriburuak, e? Segurtasun kontua ondo zainduko diagu.

ANDONI

Ederki, ba autoa ere ondo zaindu, azkenengoan depositua siku utzi zenidaten eta. Bihar bueltatzean kale honetan bertan aparkatu, eta giltza nire buzoian utzi falta gabe, zeren astelehenean lanera joateko behar dut.

JOXI

Bai jauna.

Burla doinua nabarrituta, Andonik belarri-osteko bat emateko keinua egiten dio. Joxi eta Joxean, barrezka, agur keinuak egin eta abian jartzen dira. Andonik irribarretsu begiratzen die eta segidan kontrako norabidea hartzen du.

5 **EXT. BAIONA. KALEAK. GAUA**

Joxi eta Joxean Baiona Ttipiako kaleetan barrena doaz. Kale bazter bat gainditu eta, aurrerago, R-12 bat aparkatuta antzematen dute. Barruan bi gizon daude, beraiengan arreta jarrita. Hurbildu eta, haien parean igarotzean, buruak makurtzen dituztela ikusiko dute. Joxeanek keinu adierazgarria egiten dio Joxiri. **KREDITU-TITULUAK amaitzen dira.**

JOXEAN

Horra nortzuk ditugun berriro auzoan.

JOXI

Bertan akanpatuta daudela zirudik azken boladan.

JOXEAN

Eta jendarmeria beste aldera begira.

(KOPILOTUAREN ATEAN ESKUAZ
JOKA)

Vaya, vaya!

6 **INT. BAIONA. KATTUREN TABERNA. GAUA**

Joxi eta Joxean taberna batera sartzen dira. Mahai pare bat beteta dago, beste bat bat afarirako atonduta. Barraren ostean KATTU dago (23 urte), ikusi bezain laster Kronenbourg 1664 bana ateratzen diena.

Segidan mahai batera hurbiltzen dira: han zain dauden MIGEL MARI (30 urte) eta NESKALAGUNAekin (26-27 urte) besarkadak eta musuak trukutzen dituzte. Mahai parean kaxa bat dago.

MIGEL MARI

Epa, anaia...

(NEURTZEN DU)

Baina hik jaten al dek? Gero eta argalago hago eta!

JOXEAN

Ezetz, joder, a ze mania.

(NESKARI)

Zuk nola ikusten nauzu?

NESKALAGUNA

Oso ondo ikusten zaitut, ez jaramonik egin.

MIGEL MARI

(KAXA SEINALATUZ)

Hara, hau guztia amaren partez. Joxi, gurasoek gazta bat bidaltzen diate.

JOXI

Hara, milesker.

(JOXEANI)

Igoal Andoniri emango ziozuek, autoarena eskertzeko.

Joxeank baietz egiten du kaxaren edukina aztertuz.

MIGEL MARI

Lapikoa daukazue, eta fianbreretan danetik zegok zenbait egunetan bero jan dezazuen. Hau txorizoa dek... Hemen arroza zegok...

JOXEAN

(TEBEO BATZUK ATEREAZ)

Ipurbeltz eta Kili-Kili... azken aleak, hi! Nik hauekin nahikoa zeukat.

JOXI

Ba nik ez, egarri nagok. Garagardoen bila niak.

Barrarantz doa. Beste hirurak kaxari begira geratzen dira.

JOXI (CONT'D)

Epa, Kattu (...) Aizak, horko kale bazterrean hire lagun batzuk kuxkuxean zeudek.

KATTU

Oraindik ere hor al zeudek? Egun osoa zeramatek hortik zehar bueltaka. Ba ni ez nauk ezkututzen, nirekin erraza dek: hementxe nago egunero, goizez eta arratsaldez. Orain, nire bila etortzen badira, ez nauk geldirik egongo.

Disimuloz, barra azpian daukan pistola zahar bat erakusten dio.

JOXI

Joder Kattu, nondik atera dek hori?

KATTU

(MISTERIOTSU ANTZEAN)

Kontaktuak.

Joxi erantzutekotan dagoenean Joxean dator kaxa ekarriz, eta hau barran jartzen du.

JOXI

Joxean, begira zer daukan honek.

(KATTURI)

Ea erakutsiok.

Kattuk berriro erakusten du pistola eta gazteek ironiaz erantzuten dute.

JOXEAN

Auskalo zer gerrakoa den txatar hori.

JOXI

Pisuan saldu ezak, zertxobait emango ditek seguro.

Kattuk burua astintzen du haien barren aurrean.

JOXEAN

(KAXA ADIERAZIZ)

Hi, gorde ezak hau nonbait, afaltzera geratuko gaituk eta.

7

INT. BAIONA. KATTUREN TABERNA. GAUA

Tartetxo bat beranduago. Laurak eserita daude. Joxi entsalada nahasten ari da, Kattuk pikoteo moduko plater pare bat ekartzen duenean.

KATTU

On dagizuela.

Joxi entsalada zerbitzatzen hasten denean, JUANTXO sartzen da, hurbildu eta Joxean sorbaldan jotzen du konfiantzaz.

JUANTXO

On egin.

(BESTEEN ESKERREN
GAINETIK)

Aizue biok, gogoratu astelehen
goizekoa, e? Paperak prest daude,
sinatzea besterik ez dago.

JOXEAN

A, milesker, oso ongi, hantxe
izango gaituk.

Juantxo badao besteei esku-keinu bat egin ondoren.

MIGEL MARI

Baimenarekin gorabeherak berriro?

JOXI

(SORBALDAK UZKURTUZ)

Beti bezela. Batzuetan hiru
hilabeterako, bestetan hamabost
egunerako.

NESKALAGUNA

Eta amodio kontuetan, zer moduz
zabiltzate?

JOXEAN

Hau gaizki ez. Oraindik neskalaguna
bisitan etortzen zaio.

JOXI

Hara kejatia! Hi kieto gelditzen
haiz, ba! Bizkaitar neska bati
galdetuko zioguk bestela.

Migel Mari erdi irribarreka, erdi galdera airean dago.

JOXEAN

Ez eiozue jaramonik egin, ez dago
ezer seriorik. Gure egoeran...

(SERIO DAGO BAT-BATEAN)

Gure destino bakarra, edo kartzela
edo hiltzea da.

Esanaren gordintasunak jo ditu denak, ez dakite nola
erreakzionatu. Bat-batean, isil-isilik geratu dira.

8

EXT. BAIONA. KALEGURUTZEA. GAUA

Laurak kaleko mutur batera heldu dira eta han gelditu elkarri
agur esateko asmoz.

JOXEAN

Eskumuinak etxean. Gurasoak
datorren astean etorriko dira,
ezta?

MIGEL MARI
 Beti bezela, falta gabe. Eta
 zerbait behar badek, dei ezak.

Agurrak, bostekoak eta musuak trukutzen dituzte laurek.

9 **EXT. BAIONA. TONNELIERS KALEA/APARKALEKUA. GAUA**

Joxi eta Joxean Tonneliers kaleko arkupeetan zehar datoz, bietako bat zapata lotzera gelditzen denean. Ez da inor begi bistan. Autora heltzen direnean Joxik autoko giltza Joxeani ematen dio. Joxeanek ireki eta sartu ondoren, barrutik kopilotuaren segurtagailua altxatzen du. Joxik atzeko atea irekitzen du txamarra uztekotan OFF-etik ate eta pauso zaratak entzuten ditugunean. Atzera begiratzeko astirik ere ez dute: norbaitek Joxeanen atea ireki eta iletik eustirik bolantearen aurka bultzatzen du indarrez; atze aldean Joxik indar egiten du trabatik askatzeko baina bortizki ateratzen dute ile-sorta bat kentzen diotelarik eta, behin kanpoan, norbaitek besaurraz jotzen du aurpegian eta beste norbaitek nerbioan jotzen du atzeko atearen eta maletategian artean. Joxean herrestan ateratzen dutenean giltza zorura jausten da eta bi gazteak euren autoetara daramatzate bultzaka. Erasotzaileak dira Felipe BAYO Joxeani eusten Ángel VAQUEROREN laguntzaz, Enrique DORADO eta Carlos José MARRERO Joxiren kargu hartuz.

VAQUERO
 ¡Vamos, vamos, rápido, coño!

URTU BELTZERA.

10 **INT. ANDONIREN ETXEBIZITZA. EGUNSENTIA**

Andoni zutik dago, telefonoa belarrian daukala. Deiaren hots etengabea entzun daiteke, beste aldean erantzunik ez. Hasperen egiten du, azkenean eskegi. Pentsakor geratzen da, segidan zerbait bururatu zaio eta, telefonoa berriro harturik, zenbaki bat markatzen du.

ANDONI
 Epa, aizak... Bai, Andoni nauk...
 Zera, hi, barkatu hain goiz
 deitzea... gauza bat, atzo
 Arrangoitzen egon al zineten? Bale,
 eta ez duk jakingo Joxi eta Joxean
 han geratu ote ziren? E? Nola...?
 Joatekoak zituan, ba, nire autoan,
 eta giltza buzoian utziko zidatela
 geratu gintuan baina ez... Ikusi
 ere ez? No jodas, ziur al hago?...
 Hosti, bale, milesker, bai, esango
 diat.

(MORE)

ANDONI (CONT'D)
 (AZKAR ASKO BESTE ZENBAKI
 BAT MARKATU ETA ZAIN
 GERATZEN DA)
 Juantxo, Andoni nauk.

11 **EXT. BAIONA. TONNELIERS APARKALEKUA. EGUNA**

Andoni eta Juantxo kale barrenetik datoz eta, autoa toki berean aparkatuta ikusten dutenean, bertan seko gelditzen dira, alarमतuta, une batez. Aurrera jarraitzen dute baina orain oso arretatsu doaz. Andonik pilotuaren atea seinalatzen du: ondo itxi gabe dago. Barru aldera kirik egitean txamarra ikusten dute. Andonik itxaroteko keinua egiten dio, gero zoruan belaunikatu eta autoaren azpian so egiten du. Juantxori begiratu eta ezetz egiten dio, ez da ezer arrarorik ikusten. Juantxok atzeko atea irekitzen duen bitartean, Andonik pilotuarena irekitzen du. Juantxok txamarra hartu, haztatu eta barrutik purua ateratzen du, plastikoaren barruan erdi-bitik hautsita dagoena. Andoniri erakusten dio. Hau bolantearen azpian makurtuta egon da, eta berriro altxatzen denean giltza erakusten du, zorutik hartuta. Juantxok, berriz, ile-sortan erreparatu eta hartu egiten du.

ANDONI
 Zer arraio gertatu da hemen?

Andonik giltza sartzen du eta sistema piztuta, panela ikuskatzen du.

ANDONI (CONT'D)
 Depositua beteta zegok.

JUANTXO
 Honek ez zeukek itxura onik.
 Goazemak, Andoni, abisua eman
 beharra zegok.

12 **INT. IÑIGOREN BILERA GELA. EGUNA**

Mahai luze baten inguruan Migel Mari Lasa eta JUAN MARI Zabala daude, urduri eta kezkatuta, IÑIGO Iruin sartzen denean. Gizon gaztea (30 urte), indarra eta baikortasuna darizkiona, irribarrea ezpainetan eta kutsatzen den segurtasunaz bostekoa ematen die biei agurrak trukatzuz.

IÑIGO
 Hara... Gaur Joxean eta Joxiren
 adiskideekin hitz egin dut eta...

Zalantzan geratzen da, aurrera jarraitzeko moduaren bila.

MIGEL MARI
 Eta?

IÑIGO

Bazter guztiak arakatu dituzte,
errefuxiatu eta lagun guztiei
galdetu... Inork ez daki ezer, ez
dago haien arrastorik. Kezkatuta
daude, noski, eta bilaketa
antolatzen ari dira.

JUAN MARI

Adiskideen artean? Eta hango
polizia, zer?

IÑIGO

Gendarmeriarekin ezin kontatu,
horiei bost axola zaie. Errefuxiatu
eta lagunak, beste inor ez dugu
aldean izango.

(HAIEN ETSIPENA NABARITUZ)

Hara, entzuidazue ondo... Oraindik
goiz da larritzen hasteko. Joxean
eta Joxi edonon egon daitezke:
batek daki, arriskuren bat ikusi
eta ezkutuan gordeko ziren, edo
ihes egingo zuten... Nolanahi ere,
aurkitzeko ahalegin guztiak egingo
ditugu, aztarna bat ere ez dugu
bazterrean utziko. Biak agertu
arte, ez dugu amore emango.

13

EXT. MUNTAIA: IPARRALDEKO INGURUNEA. EGUNA

Baso ingurune batean, boluntario eta senide batzuk
bilaketatik bueltan datozen, batzuk txakurrak daramatzatela,
nekatuta eta buru-makur. Bizpahiru auto aparkatuta daude eta
han Iñigo dago Andoni eta Juantxo iristen direnean.

IÑIGO

Ezer ez?

ANDONI

Ez. Batallon Vasco Español,
kabroiak halakoak! Adarra jotzen
ari dituk!

JUANTXO

Ez ote dek egongo antzeko
bidegurutze bat beste toki batean?

IÑIGO

Eginekoek gaur goizean konfirmatu
didate, ba. Komunikatuak argi eta
garbi azaltzen omen du gorpuak
Paberako errepidean daudela,
Akizerako bidegurutzetik lau
kilometrora.

ANDONI

Bai, bai, hemen dek, ez zegok
zalantzarik. Baina hau izugarri
handia dek.

JUANTXO

Eta bakarrik lagunak gaudek.
Gendarmeriak agindutako laguntza ez
dek inon agertu.

IÑIGO

Bai, badakit.

(ISILIK DAUDE SEGUNDO
BATZUETAN)

Beraz, bihar hemen orduan berean,
ezta? Esparrua hedatu eta
errepidetik apur bat harago joan
beharko dugu...

Eten egiten du beste bien aurpegiak ikustean, bai gelditu
ere. Juantxo lurrera begira eta ezezka ari da.

IÑIGO (CONT'D)

Zer?

ANDONI

Bai, etorri, etorriko gaituk,
Iñigo, baina...

Iñigo begira geratzen zaie beraien zalantzak nabaritzean.

IÑIGO

Hara, nonbait egon behar dute. Zuen
adiskideak dira, ezin dugu amore
eman!

JUANTXO

Ez diagu amore emango baina...
Joxean eta Joxiri gertatu zaiena
beste errefuxiatu guztioi
gertatzeko arriskua zegok.
Segurtasun neurriak hartu beharra
zegok.

ANDONI

Iñigo, oraindik ez bazaik argi
geratu, neuk esango diat: Joxi eta
Joxean ez dituk sekulan agertuko.

Bihurtu eta aldentzen hasi dira. Iñigo begira geratzen zaie,
esandakoaren krudelkeriak jota, ez onartzeko barne borroka
latza libratuz.

14 **INT. BAIONA TTIPIA. KATTUREN TABERNA. GAUA**

Taberna hutsik dago, Kattu beste inor ez. Aulkiak mahaien gainean jartzen ari da, amaitzen, garbiketari ekiteko asmoz. Gain-inpresioz:

Baiona, 1983ko Abenduaren 19a

Kattu atera hurbiltzen da eta, kanpora irten gabe, pertsianatik beherantz tiraka hasten da. Orduan kale bazter batean dauden bi tipoengan erreparatzen du. Barrarantz oldartzen da, honen gainera jauzi eta barrurantz makurturik, zerbait ateratzen du, GLOCK modeloko pistola bat alegia, eta hau eskuan daukala buelta egiten du. Buelta osoa egiteko astirik ere ez: atetik apenas metro bat sartu diren bi tipok tiro egiten diote bi aldiz bular aldean. Kattu barraren parean erortzen da eta han beste bost tiro jasotzen ditu. Gero, hiltzaileak oinez irteten dira. Katturen gorpua barraren oinetan geratzen da, aurpegia leher eginda daukala.

15 **EXT. DONIBANE LOHIZUNE. TXAPELAREN ETXEA. EGUNA**

Txapelaren autoa (3. sekuentzian agertu da) etxe aurrean gelditu da, pilotuaren atea bide aldera geratu delarik. Aurreko jarlekuetan Txapela eta Izaskun ikus ditzakegu. Gain-inpresioz:

Donibane Lohizune, 1983ko Abenduaren 28a

Autotik jaitsi eta, espaloiko aldean, Izaskun neskatila ateratzeko ahaleginetan ari da, Txapela irten eta huts egiten dion atea indarrez ixten saiatzen den bitartean. Kale barrenetik bi tipo moto baten gainean hurbiltzen ari zaizkie. Pakete moduan doan neskak eskua txamarra barruan sartu eta pistola bat ateratzen du. Isilgailua dauka. Espaloian Izaskunek alabatxoarekin dago, autoari bizkarra ematen.

Neskak bi tiro egiten ditu Txapelaren garondora, eta hau zerraldo erortzen da. Hirugarren tiroak kale egiten du, kopilotuaren kristala hautsi eta beste aldeko buzoia jotzen du. Izaskunek, beste aldean, kraskatxo entzun eta, bat-batean, bala zoruan ikusten du. Bihurtzean, kristal hautsia ikusten du baita kale barrenean ihesi doan motoa ere. Arrapaladan, autoari buelta ematen dio Txapela erorita aurkitu arte, begi bistan ia odolik ez daukala.

IZASKUN
¿Mikel? ¡¿Mikel?!

Erotuta, haren aldamenean makurtzen da, negar-garrasika.

IZASKUN (CONT'D)
Mikel! Ez, ez, arren! Mikel,
itzartu! Aider, aider, s'il vous
plaît...

Izaskunen atzetik alaba etorri da eta aitari begira geratu zaio, begiak zabal-zabalik, shock batean. Tutik esan gabe, begiak inon galdurik, buelta erdia eman eta handik urruntzen da, O.S.tik Izaskunen garrasiek jarraitzen diotela.

16 **EXT. TOLOSAKO ALDE ZAHARRA. GAUA**

Goizean goiz. Guardia Zibilaren furgoneta bat eta Talbot Horizon bat elkarren segidan heldu eta seko gelditzen dira, pneumatikozko zarataz, alde zaharreko atari baten parean, gain-inpresioz hauxe irakurtzen dugularik:

Tolosa, 1984ko Urtarrila

Berezko hots lehorrak, mehatxagarriak, nagusi dira inguruko auzoren bat leihora agertzen denean, kuxkuxean arretaz, fusil automatikoz armatutako guardiak autoetatik nola irteten diren ikusteko.

Guardiak banatu egiten dira kalearen zabala okupatu arte, Talbotetik agintari itxurako norbait jaisten delarik. GALINDO da (45 urte), aginduak ematen dituena atari bat seinalatuz. Agenteak agurtu eta atari barrura sartzen dira. Kale barrenean beste furgoneta bat dago zeharka jarrita, eta guardia gehiago zaindari. Nonbaitetik sirena pare baten hots ozena heltzen zaigu. Tolosa erabat hartuta dagoen inpresioa ematen du.

17 **INT. TOLOSAKO ALDE ZAHARRA. LOGELA. GAUA**

Ilunpean gaude, nonbaitetik zaratots ikaragarria datorkigu, ate bat apurtu dela esan liteke. Oihuak, ahotsak. Bat-batean, ate bat indarrez zabaltzen da eta logela batean gaudela ikus daiteke. Oheetan dauden 11 eta 7 urteko bi ume, hain ustekabean iratzartuak, negarrez hasten dira izututa.

Atea ireki duena GUARDIA zibil bat da, arma eta guzti. Umeen AMA, urduri eta beldurrez, besotik eusten ari zaio.

GUARDIA

Venga chavales, arriba... ¡todos arriba he dicho!

AMA

Por favor, son niños... les está asustando, déjelos...

GUARDIA

¿No me has oído que todos al pasillo? Venga, fuera de las camas que no tenemos toda la noche.

Pauso bat egiten du ohetarantz baina amak aurea hartu, txikiena besoetan jaso eta besteari eskua ematen dio.

AMA

Lasai, laztana, ez larritu... Etorri,
gizonak ez dizue ezer egingo.

Pasillorantz ateratzen ditu, negarrez jarraitzen badute ere. Guardia zibilak koltxoia hartu eta irauli egiten du, izarak eta burusiak zorura jaurtikiz. Gero armairura hurbildu, ireki eta eduki guztia botatzeari ekiten dio.

18 **INT. TOLOSAKO ALDE ZAHARRA. PASILLOA. GAUA**

2. GUARDIAK AITA dakar bultzaka pasilloan, eskuak atzean burdinez lotuta, eta amaren eta umeen parean gelditzen dira. Hauek negarrez ikusirik aita haiengana makurtzeko keinua egiten du, baina guardiak besotik eusten dio, aurrera jarraiaraziz.

2. GUARDIA

¡Tira para adelante, coño!

(UMEEI, BURLATI)

Nos lo llevamos a la cárcel, por puto terrorista. Que os explique vuestra mamá qué es eso.

AITA

Lasai umeok, ez iozue kasurik egin,
laster etorriko naiz....

Guardiak belarrondokoa ematen dio.

2. GUARDIA

¡Calla y sal, hostia!

Beste guardia umeen gelatik irten eta haien atzetik doa. Sarrerako atea tutorretik aterata dagoela ikus dezakegu. Umeek negarrez jarraitzen dute. Amak, malkoak begietan, biak estu besarkatzen ditu.

19 **EXT/INT. TOLOSAKO ALDE ZAHARRA / FURGONETA. GAUA**

Aita ataritik ateratzen dute bultzaka. Galindo hantxe dago eta bien begiradak gurutzatu egiten dira. Galindorenak harrokeria eta desafioa igortzen dute. Norbaitek furgonetaren atzeko atea irekitzen du eta Aita igoarazten dute indarrez. Barruan, bera bezala eskuak atzean lotuta dauzkatela, beste bizpahiru atxilotu daude, 20tik 40ra urte bitartekoak, denak izututa, begiez galdezka zertara ote datorren hau guztia.

20 **INT. KUARTELA. ZIEGA. EGUNA**

Argi hori zurbila ñir-ñirka dabil, deseroso. Musika ozenki jarrita dago eta, hala ere, noizean behin beste ziegetatik kezuzko oihiak heltzen dira. Lehen ezagutu dugun Aita flexioak egiten ari da, itolarrian ibili ere.

Lehen haurren gelara sartu den Guardia zaindari dauka, 2.
GUARDIArekin batera.

GUARDIA

Más alto, que no te oigo. ¡Y más rápido, cojones! ¡Venga, venga, venga...!

AITA

(ARNASESTUKA ETA AZKARTUZ)

... ochenta y cinco... ochenta y seis...
ochenta y siete...

Erritmo frenetikoak ahituta, lurra jotzen du, itolarrian eta izerdi patsetan. Guardia sumindu egiten da eta harengana aurpegia hurbiltzeraino makurtzen da.

GUARDIA

¡Que no pares, joder! ¿te he dicho yo que pares? ¡Me cago en la puta!

(ZUTIK JARRIZ)

Vas a estar así toda la noche, a ver quién se cansa antes.

Aita besoetan zutitzen saiatzen da baina ezin. Guardiak ostikada ematen dio saihetsean.

AITA

¡Que yo no he hecho nada, por favor!

GUARDIA

¿Pero tú nos has tomado por imbéciles? ¿Cómo que no has hecho nada, etarra de mierda?

AITA

¡Yo no soy de ETA, de verdad, se están equivocando con otro!

GUARDIA

Ah, que no eres de la ETA.

(OSTIKADA EMANEZ)

¡Miénteme otra vez, ya verás qué hostia te vuelves a llevar! Han sido tus amigos Lasa y Zabala los que nos han dicho que sí lo eres. Y sigue haciéndote el valiente, que vas a terminar enterrado como ellos...

2. GUARDIA

¡En Brasil, joder! Están en Brasil, enterrados en un montón de pasta y lejos de toda esta mierda vuestra. Y tú también puedes ir con ellos si colaboras.

GUARDIA

Este va a colaborar, pero haciendo deporte. Venga, coño, movimiento y a contar!

Nekez eta pekez, Aitak zoruan jarri eta flexioak egiteari ekiten dio.

AITA

Ochenta y ocho... ochenta y nueve... noventa...

Ahotsa urrunduz eta oihartzuna hartuz doa.

URTU BELTZERA

21

INT. JESUS GARCIAREN ETXEA. ALACANT. EGUNA

El Mundo (?) egunkaria mahai baten gainean dago, tolestuta. Gain-inpresioz hauxe agertzen da:

Alacant, 1995ko Urtarrila

Norbaitek koadroan agertu eta egunkaria hartzen du. Destolestu eta, azalean, besteak beste, Amedo komisarioaren argazkia agertzen da, eta honako azpititulua:

Amedo dice que le ofrecieron 1.000 Millones "o lo que quisiese" por retractarse

JESUS Garcia (53 urte, itxura zurbil eta nekatua) titulua ikuskatzen ari da, bekozkoa jarrita.

GARCIA ANDREA (V.O.)

Venga, Jesús, pon la mesa, que vamos a comer.

JESUS (V.O.)

Joder.

Mediterraniar itxurako jangela batean daude. Jesus egunkaria ireki eta Amedoren albistea bilatzen hasi da.

GARCIA ANDREA (V.O.)

Ya nos estamos quejando. No te irás a herniar, ¿eh?

JESUS

No, mujer, si lo digo por toda esta historia que no para de salir sobre Amedo y el Gal y el secuestro de Marey. No puedo creer que nadie sea capaz de hacer algo así, mucho menos unos compañeros policías.

GARCIA ANDREA (V.O.)
 Y que lo digas. ¡Qué horror! Si
 estuvieron a punto de matar a ese
 pobre. Y querían enterrarlo en cal.

Jesusek artikulua aurkitu du eta segundo bat behar du andreak
 esandakoa prozesatzeko. Nolabait, deigarria iruditzen zaio.

JESUS
 ¿Cómo que en cal?

Andrea atean agertzen da bi plater eta mahai-tresnak ekarriz.
 Mahai gainean uzten ditu eta atontzen hasten da.

GARCIA ANDREA
 En cal viva. Lo han dicho en la
 tele.

Jesus asaldatuta dago bat-batean eta artikulua arakatzen
 hasten da azkar, zerbait bilatu arte.

JESUS
 En cal viva... En cal viva. Joder.

GARCIA ANDREA
 ¿Qué?

Andreak ez du ulertzen baina Jesus berekiko ari da. Bat-
 batean egunkaria mahaira bota eta aulkiko jaka hartzen du.

JESUS
 Tengo que ir al archivo un
 momentito. No tardo.

GARCIA ANDREA
 ¿Ahora? Pero si vamos a comer...
 ¡Tienes que tomar las pastillas!

22

INT. ALACANTEKO POLIZIA ETXEA. ARTXIBO GELA. EGUNA

Uniformedun polizia kide batzuren aldamenetik igarotzen da
 Jesus, apalategi zabal baten aurrera iritsi eta zerbaiten
 bila hasi arte. Apalak artxibo lodiz beteta daude, eta hauek
 paperez gainezka. Begi bistan, urteen arabera antolatuta
 daude eta Jesusek "1985" zenbakia eskuz idatzita daukan bat
 ateratzen du. Gero mahai batean jarri eta ireki egiten du.
 Karpeta mordo bat dago, bakoitza bere izenburuarekin. Bila
 eta bila, azkenean nahi duena aurkitu du. Azalean hauxe dio:

Busot - Cuerpos sin identificar

Karpeta albo batean jarri, ireki eta edukiak ikuskatzen
 hasten da: informe baten kopia, Alacanteko Institutu
 Anatomiko Forensearen txosten bat, aditu-txosten batzuk,
 hauetako bat halako munizioari buruz, eta argazki batzuk.

Hauetan gelditzen da, eta bat hartzen du gertutik ikustearren: ingurune malkartsu bat islatzen du, haren erdian angeluzuzen moduan egindako zulo bat eta, honen bazterrean, ateratako lur pilo bat, kare biziaren zuriaz nahastuta.

Kamerak ZOOM-IN egiten du argazkiaren barrurantz, zulorantz alegia. Hemen giza hezurak izan litezkeenak antzeman daitezke, eta hauen artean, sakabanatuta, ikertzaileek jositako markagailu horiak.

KATEATU

23

EXT. FOYAS DE COVES. BUSOT, ALACANT. EGUNA

ERROTULUA: FOYA DE COVES, BUSOT (ALACANT), 1985

Paraje berean gaude. Argazkian bezala, zuloa agerian dago, bazter batean lur eta kare bizizko piloa. Hiruzpalau metrora, taldetxoan, Jesus bera ikusten dugu, orain hamar urte gazteago eta osasuntsuago, eskumako eskua gomazko eskularruz jantzita eta plastikozko poltsatxo bat eskuan; Antonio BRU forensea, hau ere gomazko eskularru batez; ALACANTEKO EPAILEA, gizon adintsu eta potoloa, lan egiteko gogo eskaseko itxurarekin; eta EHIZTARIA, halakoaren beso gabeko jaka eta prakaz jantzita. Metro bat atzerago, gizon bat esaten den guztia idazten eta, zenbait metro harago, bi guardia zibil eta pala batean bermatuta dagoen herritar bat.

Ehiztariak, bere azalpenean, zulotik kanpo dagoen objektu bat seinalatuko du: giza oin baten hezurak dira, eta ondoan markagailu horietako bat josi dute.

EHIZTARIA

... Vi que los perros jugaban con algo. Pensé que era alguna alimaña muerta y vine a apartarlos, ya sabe, por si pillaban una enfermedad.

(O.S.)

Pero cuando vi lo que era casi me caigo de espaldas, así que bajé corriendo a avisarles.

JESUS

Subieron con el enterrador del pueblo y encontraron todo esto.

Epaileak baietz egiten du.

ALACANTEKO EPAILEA

Muy bien, le agradezco su colaboración. Le avisarán del cuartel para que firme su declaración. Ahora ya no le retenemos más, buenos días.

Ehiztariak buruaz agurtzen ditu eta guardia zibilengana urruntzen da. Epaileak musuzapi bat ateratzen du eta kopeta sikatzen du bafada leun batez.

ALACANTEKO EPAILEA (CONT'D)

Hay que tener mala idea, coño, mira que los han traído lejos.

JESUS

Y además cargando con toda esa cal viva. Por lo menos habrá treinta o cuarenta kilos.

ALACANTEKO EPAILEA

Las puñeteras mafias internacionales... Bueno, Antonio, ¿qué tenemos?

BRU

Dos cadáveres, en una primera impresión varones y de unos veintitantos años...

Bru buelta erdia eman eta zulora hurbiltzen da, beste biek jarraituta. Barruan bi gorpuren hezur arrastoak daude, azpikoa gora begira, beste haren gainean, ahozpez baina aurpegia haren oinetan eta oinak haren aurpegian. Goikoari oin bat falta zaio, eta beso bat askatuta dauka. Jesusek alboan pilatutako lurra seinalatzen du, karez nahasia.

BRU (O.S. ETA ON) (CONT'D)

Los enterraron en cal viva, y usaron una cantidad enorme. Estaban desnudos, les cubrieron los ojos con tela y los amordazaron con cinta adhesiva antes de matarlos. Ambos cuerpos están llenos de vendas y tiritas.

(GOIKO GORPUAREN BURUA SEINALATUZ)

¿Ve el agujero en la nuca? Es un disparo a quemarropa, la causa probable de la muerte.

Jesusek eskuan daraman poltsatxoa erakusten du. Barruan bala bat dago.

JESUS

Cuando levantemos los cuerpos cribaremos la tierra, pero juraría que a los dos los mataron igual.

BRU

Después de someterlos a terribles torturas, eso es evidente.

ALACANTEKO EPAILEA
(HASPERENKA, JESUSI)
¿Un ajuste de cuentas?

JESUS
No lo tengo nada claro. En los
ajustes de cuentas no suele haber
torturas por medio.

ALACANTEKO EPAILEA
Entonces, ¿qué? ¿Tenemos alguna
denuncia por desaparición?

JESUS
Ninguna pendiente en toda la
provincia.

ALACANTEKO EPAILEA
Pues no queda más hipótesis que la
de las mafias.

JESUS
Es que no lo veo...

ALACANTEKO EPAILEA
Investígame a esos italianos que se
nos están colando por todos lados,
que no será la primera que hacen
algo así.

Epailea badoa eztabaida amaitutzat emanaz. Jesusek hasperen
egiten du eta gorpuei begira geratzen da.

24 **INT. ALACANTEKO GORPUTEGIA. EGUNA**

Gorpu baten hondarrak, orain, autopsia mahai baten gainean
daude. Jesus eta Bru sartzen dira gelara, azken hau bat az eta
eskularruz jantzita.

BRU
El cuerpo número uno, el que estaba
encima, mide 1,72. Posiblemente
ambos murieron de igual forma, por
traumatismo abierto causado por un
objeto pesado.

JESUS
Pero en la nueva inspección hemos
encontrado una segunda bala. Eso
sugiere que a los dos los mataron
de disparos.

BRU
Yo diría que cuando les dispararon
ya estaban muertos. Mira...
(O.S. BUREZUR BATEN
GAINEAN)
(MORE)

BRU (CONT'D)

el cráneo está partido en dos y aquí se adivina el agujero del impacto.

(ON)

Tuvo que ser brutal. Y el otro está igual.

JESUS

Ya... pero con todo esto... Mira, Antonio, el juez está empeñado en lo de las mafias y yo sigo sin verlo. Dame algo más, hombre.

Bruk burezurra bihurtzen du ahoa agerian uzteko, eta aginetako bat seinalatzen du. Metalezko hortz-estalki bat da.

BRU

Aquí tienes algo. Esta funda dental no está hecha en España.

JESUS

Pues peor me lo pones, suficiente para adjudicarlo a las mafias.

BRU

Tengo más, hombre. Ven...

Burezurra utzi eta ormaren kontra dagoen apal edo mahai batera doa, Jesusek jarraituta. Hango erretilu batean benda zikinak, tiritak eta zinta itsaskor zatiak daude. Bruk azken hauetako bat hartzen du. **Detalea:** ile batzuk itsatsita antzeman daitezke.

BRU (O.S.) (CONT'D)

Uno de ellos tenía barba, esta cinta estaba en su boca. Además, diría que les arrancaron las uñas, ya que no he encontrado ningún rastro de ellas. (ON) Y, como te dije, hay también restos abundantes de mercromina, pero además aquí hemos encontrado tul, una sustancia para curar quemaduras.

JESUS

Cráneos rotos, uñas arrancadas, heridas y quemaduras...

BRU

Sí, todo lo que hay aquí es una barbaridad. Esto solo lo puede hacer gente que no está bien de la cabeza.

JESUS

Sea como sea, no sé qué podré hacer con todo esto.

BRU

Mira, Jesus, cada vez que veo esos restos pienso que, en algún lugar, hay unas madres esperándoles. Tardes lo que tardes, yo los guardaré hasta que podamos devolvérselos.

Jesus begira geratzen zaio, ulertuz.

25 **INT. ALACANTEKO POLIZIA ETXEA. ARTXIBO GELA. EGUNA**

1995 urteko Jesusek argazkia eskuan daukala jarraitzen du, gogoratzen. Bere tokian utzi, eskuko agenda poltsikotik atera eta zerbait bilatzen du. Gero, mahaiko bazterrean dagoen telefonoa altxa eta zenbaki bat markatzen du.

JESUS

Sí... ¿Antonio? Jesús García... Eso es, el mismo. Bueno, ¿qué me cuentas? Ya veo que sigues en ese trabajo tan entretenido de abrir cadáveres... Je, je... ¿Yo? Pues trabajando también... eso es... Bah, la salud regular... una cosilla del corazón, pero bueno, aquí seguimos. Oye, mira, te llamo por una cosa... ¿Recuerdas aquel caso de hace diez años, el de los dos cuerpos de Busot..? Eso es... Dime, Antonio: ¿cumpliste tu promesa, los guardaste?

26 **INT. ALACANTEKO POLIZIA ETXEA. APARKALEKUA. EGUNA**

1995 urteko Jesus eskailerako atletik agertzen da, jakaz jantzita, bidaia poltsa bat eta maletin bat daramatzala. Aparkatutako auto batera iritsi eta, gauzak zoruan utzita, maletategia irekitzen du. Garajejan gertu auto bat dabil eta, Jesus gauzak sartzen ari denean, bere atzean gelditzen da. Jesusek buelta erdian ematean, Guardia Zibilaren auto ofizial bat dela ikusten dugu, eta goi ofizial bat leihatila jaisten ari dela. Beraren bila dator eta nondik edo handik elkar ezagutzen dute, beraz Jesus ez da harritzen eta onartu egiten du besteak bostekoa eskaintzen dionean.

OFIZIALA

Comisario García, parece que le pillo a punto de salir de viaje.

JESUS

Así es, y ando con el tiempo justo, lo siento. Si tiene algún tema oficial, mi equipo le atenderá.

Jesusek gauzak kargatu ditu eta maletategia ixten du. Bitartean, Ofiziala autotik jaitsi da.

OFIZIALA

No es un tema oficial. (...) Me dicen que ha estado usted llamando a nuestro cuartel de Busot.

JESUS

Así es.

OFIZIALA

Por dos cadáveres sin identificar de hace diez años. Y según parece, piensa usted que son de la ETA.

JESUS

De momento es solo una hipótesis, estoy en ello. Pero no entiendo qué interés tiene la Benemérita en eso.

OFIZIALA

Y yo no entiendo qué interés puede tener usted en dos etarras. Que son terroristas, comisario. Gentuza que va por ahí asesinando a nuestra gente.

JESUS

A los que hay que perseguir, detener y enviar a la cárcel, sin duda. Pero aquí tenemos a dos personas que fueron torturadas y asesinadas. ¿Me está pidiendo que mire para otro lado?

OFIZIALA

Le estoy pidiendo que recuerde cuál es su bando.

JESUS

Mi bando es el de la justicia y el deber cumplido. Y también el suyo, por si lo ha olvidado. Hay unos asesinos sueltos por ahí y pretendo llevarlos ante un juez. Porque ese es mi deber.

Ofizialak argudioak agortu ditu. Segundo batean adi-adi begira geratu zaio, gero buelta eman eta autora sartzen da. Jesus ez da mugitzen bakarrik geratu arte. Asaldatuta dago.

Kristaldun atean **Fiscalía de la Audiencia Nacional** dio. Barrutik grabatuta dagoen gizonezko ahots bat datorkigu. Telefonoz ari da eta oso urduri, estropezuka:

FISKALA (O.S.)
(IRAKURTZEN)

... en nombre de los Grupos Antiterroristas de Liberación, que habían ajusticiado en Alicante a dos miembros de ETA, y que habían muerto pidiendo un sacerdote pero no se lo dieron porque no se lo merecían.

Bulego barruan, mahai bateko bi aldeetara, Jesus eta FISKALA daude. Azken honek txosten bat irekita dauka aurrean.

FISKALA (CONT'D)
Y esto es de Enero de 1984. Así que no se grabó la llamada. ¿Y dice que le aportó esto al juez?

JESUS
Sí, pero le pareció la típica maniobra de la extrema derecha para enredar.

FISKALA
Pero si incluso reivindican el nombre del GAL.

JESUS
Hombre, recordará que ese nombre era todavía desconocido, apenas se había empezado a usar un mes antes en un par de atentados. No había confirmación de una actividad organizada del GAL.

(FISKALAK HAUSNAR
BEGIRATZEN DIO)

Mire, no voy a cuestionar la actitud del juez, mucho menos después de diez años. Por aquel entonces estábamos preocupados por la incidencia de las mafias internacionales, él me ordenó investigar por esa línea, no hubo resultado alguno y el caso quedó archivado.

Fiskalak hasperen egiten du eta atzera jartzen da. Hausnar dago, ideiak ordenatu nahi antzean.

FISKALA
Mire, Jesús, si, como parece, el Gal está por medio y reabrimos el caso, se puede armar una de imprevisibles consecuencias.

JESUS

Señor fiscal, en Alicante hay unos cuerpos sin nombre, y en algún sitio, unos asesinos sin castigo.

FISKALA

(EKITEN)

La atención mediática será tremenda y habrá presiones de todas las esquinas.

JESUS

(IRRIBARRE IRONIKO BATEZ)

Ya las está habiendo.

FISKALA

¿Está preparado para lo que venga?

JESUS

La cuestión es: ¿está preparada la justicia?

Galdera fiskalaren aurpegian islatzen da.

28

INT. IÑIGOREN DEXPATXOA. SARRERA. EGUNA

ERROTULUA: 1995ko Otsaila

Kaleko atea irekitzen da eta Iñigo sartzen da eskuan maletina daukala. Hamabi urte zaharragoa da, adierazpena ere gogorrago eta nekatuagoa du. Sartzerakoan pasillotik AMAIA Murua (Iñigoren adin berekoa) agertzen da artxibo-karpeta potolo bat daramala.

IÑIGO

Kontxo, Amaia, daramazun enpresa ixte hori pisutsu samarra bihurtu zaizu, ezta?

AMAIA

Pisutsua, lapur horiek kale gorrian utzi duten jende guztia... Ah, Iñigo, bisita bat daukazu.

Ateko txirrinak jotzen du eta Iñigok, Amaiarekin jarraitu ahala, ia deskuidoan irekitzen du. POSTARIAK pakete-gutun bat heltzen dio.

POSTARIA

Egun on. Pakete bat.

IÑIGO

(TXUNDITUTA, SINATU AHALA)

Kaixo... ¿Bisita? Hara, ez nuen inolako zitarik eta.

AMAIA

Lasa eta Zabalaren senideak.

Iñigo agirian sinatzen hasia zen eta hori entzunda tentsioan jartzen da. Ez du albistea gogoz hartzen eta, Postariak agur esandakoan atea ixtean duenean, ezin du nahigabea galarazi.

IÑIGO

Joder!

Amaiaren harridura nabaritzuz, maletina eta gutuna eserleku batean uzten ditu, hasperenka.

IÑIGO (CONT'D)

Jadanik ez dakit nola lagundu...
hitzak bukatu zaizkit. Zenbat urte
dira, hamar?

AMAIA

Ez, hamabi jadanik.

IÑIGO

Hamabi. Hamabi urte semeen berririk
gabe...

AMAIA

Ez dut uste itxaropen bila etorri
direnik, Iñigo. Albisteren bat
daukatela iruditu zait.

Iñigori aurpegian jakingura pizten ari zaio. Pasillora begiratzen du, gero Amaiari eta, hasperen sakon batz, badoa.

29

INT. IÑIGOREN DESPATXOA. EGUNA

Migel Mari eta Juan Mari zutik daude, bien aitak eserita, laurak urduri baino urduriago Iñigo sartzen denean. Honek maletina mahai gainean uzten du. Zerbait gertatu da.

IÑIGO

Kaixo, hau bai ezustea. Zer...?

JUAN MARI

Entzutegi Nazionaletik dei egin
digute, Iñigo.

IÑIGO

Entzutegi... Ene, zertarako?

MIGEL MARI

Antza denez, Alacanten bi gorputz
omen daude identifikatu gabe. Hamar
urte egon dira han...

Ezin du jarraitu, hitzak traban jartzen zaizkio. Iñigo zur eta lur geratzen da, kosta egiten zaio erreakzionatzea.

JUAN MARI

Ez dela segurua esan digute,
identifikatu arte. ADN frogak geuk
eskatu behar omen ditugu.

MIGEL MARI

Eta Joxeanen fitxa dentala eskatu
digute.

IÑIGO

(IA BERE GOLKORAKO)

Joxean eta Joxi...

Bi aitak isilik eta buru-makur egon dira, betiko moduan,
Lasatarren aita marmaritzen hasi arte. Bere semeak eskua
sorbaldan jartzen dio, kontsolatu nahian.

JUAN MARI

Eta beraiek badira, zer, Iñigo?

Iñigo berpiztu egiten da galdera entzutean eta adierazpena
gogortzen zaio.

IÑIGO

Beraiek badira, etxera ekarriko
ditugu. Eta gero, zuek ados
bazaudete, ez dugu atsedetik
hartuko hiltzaileak aurkitu, epaitu
eta gartzelara sartu arte. Zin
degizuet.

Lau senideak begira geratzen zaizkio.

30

INT. MUNTAIA: ALACANTEKO GORPUTEGIA. EGUNA

IÑIGO (V.O.)

Lehenik, profesional baten laguntza
beharko dugu, eta pertsona egokia
ezagutzen dut... Pako Etxeberria,
antropologo eta forense oso aditua.

Iñigoren ahotsaren gainean, nonbait ate bat irekitzen da
zarataz. Luzaro erabili gabe egon da. Kanpotik sartzen den
argitan, Bru forensearen autopsia gela berean gaude nabari
da, nahiz eta orain oso utzita agertu: bazter batean fundaz
estalitako motozikleta bat, kaxa batzuk, hautsa... Ate
parean, bi langileri aurrea hartuz, PACO ETXEBERRIA dago.
Orain itzalitza dauden kamera frigorifikoen aurrean daude. Bi
langileek haietako batetik hilkutxa zahar eta higatu bat
ateratzen ari dira. Barruan gizaki baten hezur arrastoak
daude modu traketsean pilatuta, benda eta zinta itsaskor
zatiz nahasita, jarri baino jaurtiki balira moduan. Pacok
burezurra hartzen du eta haginak begiratzen dizkio. **DETAILEA:**
behe aldeko bi premolarrak falta ditu. Atzera begiratzen du:
hurrengo mahaian beste hilkutxa dago, hura ere zabalik. Hara
hurbiltzen da...

PACO

Esta vez sí son Lasa y Zabala.

31

INT. LABORATEGI FORENSEA. LANGELA. EGUNA

Mahai baten inguruan Paco Etxeberria, Iñigo, Migel Mari eta Juan Mari daude. Pacok txosten bat irekita dauka aurrean, testua eta argazki batzuk agerian. Horma batean beira-armairu bat dago, eta honen apaletan burezur bilduma bat. Honen parean, lan-mahai bat ormaren kontra, ordenagailu, lanpara, mikroskopio eta tiraderez josita.

PACO ETXEBERRIA (V.O.)

Fitxa dentalei esker berehala jakin nuen beraiek zirela. Gainera, iletik eta beste hondar organikoetatik ADN a lortzeko modua izan dut. Ziurtasun osoz, gorpuak Joxi eta Joxeanenak direla baieztatu dezaket.

MIGEL MARI

(KOSTATA HITZ EGITEN)

Nola... nola hil ziren?

Pacok txostenari buelta erdia emango dio, besteek hobeto ikusi ahal izateko burezur baten (berriz osatuta) eta honetan dagoen zuloaren argazkia.

PACO ETXEBERRIA

Aurreko autopsiak bestela esan bazuen ere, ez zituzten kolpez hil, tiroz baizik, eta Joxi, gainera, bi tiroz. Horra... (O.S.) Ikusten zuloaren inguruko kolore berdexka? Hori munizioaren berunagatik sortu da denbora pasa ahala. (ON) Bestalde, ez dut uste azkazalak kendu zizkietenik, lurrean gutxi batzuk agertu baitira, baina saihetsetan, besoetan eta hanketan lesio azterna asko daude. Tortura latzak jasan zituzten, odol ugarikoak segur aski.

Bi anaiak gainez eginda daude entzundakoen gordintasunagatik. Migel Marik burua astintzen du ezezka. Pako Etxeberriak txostena ixten du azalpenekin jarraitu beharrean.

PACO ETXEBERRIA (CONT'D)

Hauexek dira puntu garrantzitsuenak. Txosten osoa Iñigori bidaliko diot eta berak emango dizkizue kopiak.

MIGEL MARI

Ez dut uste gure etxekoek horien berri jakin nahiko dutenik. Joxean eta Joxi noiz itzuliko dizkiguten, horixe jakin nahi dute. Denok nahi dugu.

IÑIGO

Lasai, gutxi falta da. Froga perizial hauek amaitzen direnean. Etxean izango dituzue laster.

32 **INT. IÑIGOREN DESPATXOA. EGUNA**

Atea irekitzen da eta Amaia agertzen da. Iñigo gainezka dagoen mahai baten atzean eserita dago.

AMAIA

Iñigo, unetxo bat?

Baztertu eta mutil lotsati bat sartzen da: FEDE (25-26 urte), trajez jantzita, eskuan kartera dakarrena.

AMAIA (CONT'D)

Hauxe duzu aipatu nizun mutila, Fede Arregi.

Gizonek elkarri bostekoa ematen diote.

IÑIGO

Urte askotarako.

FEDE

Zer moduz.

AMAIA

Beno, biok bakarrik utziko zaituztet. Gero arte.

Badoa, atea itxiz, bi gizonak esertzen diren bitartean.

IÑIGO

Beraz, Fede... Arregi, ezta? Zuzenbidean kriminologiako espezialitatea aukeratu zenuen, master bat ere egin zenuen, eta praktikak egin dituzu Manu Arrasateren despatxoan.

FEDE

Bai jauna.

IÑIGO

Bai, Iñigo.

FEDE

E?

IÑIGO

Bai jauna, ez, bai Iñigo nahikoa da.

FEDE

(IRRIBARRE LOTSATI BATEZ)

Ah... bai, jau... Iñigo.

IÑIGO

Kontua da, Fede, zu bezalako norbaiten beharra daukagula. Badakizu zer nolako kasuak eramaten ditugun hemen, ezta?

FEDE

Bai, atxilotu politikoak defendatzen dituzue, ezta?

IÑIGO

Horrelako batzuk, bai, baina... besteak beste, Joxean Lasa eta Joxi Zaballarena ere bai.

FEDE

A bai, baina hori...

IÑIGO

Kasu horretarako behar zaitut, Fede.

Fedek begiak zabalik irekitzen ditu eta ez daki zer esan.

IÑIGO (CONT'D)

Begira, egun batetik bestera epaileak sumarioa irekiko du. Deklarazio mordo bat eskatu beharko dugu, hainbat gauza ikertzeko eskatu ere bai, eta txosten orriak milaka etortzen hasiko dira. Begi pare bat beharko dut dena arretaz irakurri eta kontraesanak, okerrak edo puntu ahulak aurkitzeko, eta estrategia prestatzen laguntzeko. Manu Arrasatek horretarako proposa zarela esan dit. Zer diozu? Zurekin konta al dezaket?

Fede izututa samar dago, asimilatu nahian. Iñigo konturatu egiten da, eta jarraitzen du:

IÑIGO (CONT'D)

Hara, ez dizut gezurrik esango: lan gogor eta luzea izango da, segur aski bizi erdia kenduko diguna. Zenbat aukera, galdetzen duzu? Gutxi. Baina aukerak bilatu egiten dira eta, nik, behintzat, ez dut horretan etsiko. Eta zuk?

Fedek hausnartu egiten du. Iñigok indar eta karisma handiak ditu, pentsamolde berekoak dira antza denez...

FEDE

Ados... konta ezazu nirekin.

33 **EXT. TOLOSAKO HILERRIA. BARRU ALDEA. EGUNA**

Bi hileta-autoak hilerriko eraikuntzaren magalean aparkatuta daude, kanpo aldetik sarrerako hesiaren bidez ikusgai. Ondoan bi langile zain daude. Jendetza baten ahotsezko zarata helden zaigu, konsignak oihuka ari antza denez.

34 **EXT. TOLOSAKO HILERRIA. SARRERA. EGUNA**

Tolosako hilerriko sarreran gaude. Ate nagusia itxita dago, aurrean, ilara osatuz, zenbait ertzain irmo, buru-berokiz jantzita, jendeari begira. Iñigo haien ofizialarekin hizketan ari da. Haiengandik metro pare batera pilatuta, gurasoak, Migel Mari, Juan Mari eta beste senitarte batzuk, baita hainbat argazkilaria. Are atzerago jende gehiago suma daiteke nekez ulertzen diren konsignak oihukatuz, eta haien buruen gaindi ikurrinaren bat krespoi beltzez. Gain-inpresioan:

Tolosa, 1995eko Ekainaren 21a

Aurre-aurrean dauden senide eta lagunaren artean sumina eta haserrea dira nagusi, denak protestaka ari dira.

BATZUK AD-LIB

Baina zer arraio, hau ezin dut
sinistu! / Hau lotsagarria dek! /
Indarrez sartu behar genuke, joder!
/ Haien morroiak zarete, haien
morroiak! Bai, zuek!

JUAN MARI

Izorratu nahian, hi, izorratu
nahian ari ditek: Ez zigutek
funerala egiten utzi, gaur
Hondarribian kriston jipoia, eta
orain hau!

IÑIGO

(HAIENGANA HURBILDURIK)

Itxaron egin behar dugula dio.
Gorputzak emateko epailearen
baimena behar omen du, eta baimen
hori beste auto batean dator.
Laster iritsiko dela prometatu dit.
Pazientzia eduki behar.

Denak protestaka lehertzen dira berriro:

BATZUK AD-LIB

Baina ze pazientzia eta pazientzia
ondo! Kokoteraino nago! / Hau
sekuestro hutsa dek! / Baimena gure
mutilak lurperatzeko? Hau marka!

SENIDEA

Hau probokazio hutsa da, ezin degu
onartu, joder! Gure mutilak dira,
goazen eta lurperatu ditzagun!

BATZUK AD-LIB

Bai, goazen! / A tomar por culo! /
Pikutara euren baimena!

Gehienak aterantz oldartzen dira, gurasoak ezbaian geratzen
direlarik, gaindituta. Iñigo jendearen aurrean jartzen da
tragedia eragotzi nahian.

IÑIGO

Ez, ez, geldi zaitetze, mesedez!
Probokazioa bada, ez gaitezen
horretan erori. Eurek nahi dutena
da eta!

Haien aurrean jartzeko moldatu da, eta geldiarazteko ere bai.
Ertzainen aurre-aurrera heldu dira, eta haien begiak argi
ikus daitezke buru-berokietatik, baten ahoko mugimendua ere
bai, zerbait murtxikatzen ari baita. Den-denak tente daude,
nerbioak azalean.

ERTZAINEN OFIZIALA

Abokatu jauna, mesedez, mundu
guztia atzera oraintxe bertan.

Iñigo harengana itzuli eta hurbildu egiten zaio, suminduta.

IÑIGO

Mekauen zotz! Beraiek bezalakoak
zarete, joder!

Ofizialak begiradari eusten dio, erantzun gabe. Iñigok
azkenean, bere burua kontrolatzen du eta bizkar ematen dio.

IÑIGO (CONT'D)

Atzera, atzera, mesedez...

Ez da inor mugitzen, egundoko tentsioa dabil airean. Ofiziala
agindua emateko zorian dago, baina, halakoan, Lasatarren
Aitak Iñigo besoan ukitu eta atzera seinalatzen du.

LASATARREN AITA

Iñigo, begira.

Bi ertzain jendeartetik hurbiltzen ari dira, bidea nekez
irekitzen. Batek kartazal bat dakar eskuan eta, Ofizialaren
parera heltzean, eman egiten dio.

Mundu guztia isilik eta adi dago hark ireki, orri bat atera eta ikuskatzen duen bitartean. Azkenean, Iñigori buru-keinu bat egiten dio, hau hurbildu eta orria ematen dio. Gero, ertzainei atea irekitzeko keinu egiten die.

ERTZAINEN OFIZIALA
Bakarrik senideak sar zaitezketete.

Denak isilik sartzen hasten dira.

35

EXT. TOLOSAKO HILERRIA. BARRU ALDEA. EGUNA

Bi hileta-autoak lehengo toki berean daude, atzeko atea irekita eta hilkutzak agerian dauzkatela. Senideen aurretik ertzainak heltzen dira eta, autoen bi aldeetara lerrokatzen diren bitartean, Ofiziala han zain dauden bi langileengana hurbiltzen da. Batek zerbait diotso hilkutzak seinalatuz eta orduan Ofiziala senideengana bihurtzen da.

ERTZAINEN OFIZIALA
Hau da Lasa eta beste hau Zabala.

Bazterrera jartzen da eta aurrena datozen senideek aurrera pauso egiten dute. Ertzainak tentsio betean daude, eta batek erdi jauzi egiten du LEHENGUSINAK eskua poltsara eramaten duenean.

LEHENGUSINA
Karteltxoak egin ditut izenekin.

Ateratzen dituen bitartean, Juan Mari eta Migel Mari hilkutxen ondoan datozen lore sortak atera eta atzekoei banatzen hasi dira. Lehengusina hilkutxa batera hurbildu eta, "**JOXEAN**" dioen karteltxoa utzirik, poltsatik zinta bilgu bat ateratzen du. **DETAILETAN** ikusten dugu nola bere azazkalek zintaren muturra bilatzen duten, nola askatu eta bi atzamarren artean eusten dioten eta, azkenik, nola askatzen duten. Zinta askatzearen hots kirrinkariak oihartzuna harrotzen du.

Ertzainak asaldatu egiten dira, beraiantzat erasoaren oihartzuna da. Urdurien dagoenak porra atera eta ondoen dituenak jotzeari ekiten dio. Seinale bati erantzunda legez, beste guztiak jotzen hasten dira. Senideak noraezean ihesi doaz, beldurrezko eta minezko garrasiak daude. Bat buruan jotzen dute eta belauniko jausten da, odola dariola. Ertzaina berriro jotzera doa baina batzuk galarazten dute, bultzaka. Iñigo Ofizialarengana hurbiltzen da, bere onetik aterata.

IÑIGO
Baina zer arraio ari zarete? Burua galdu duzue, joder, eman gelditzeko agindua, bestela gaur bertan salatuko zaitut. Oraintxe!

Ofiziala menpekoengana bihurtzen da.

ERTZAINEN OFIZIALA
Gelditu denok! Itzuli zuen
tokietara! Zaintza egoeran denok!

Ertzainak obeditu eta lehengo tokietara itzultzen dira. Inguruan, lorez zipriztindutako zorua, emakume batzuk negarrez, gizonezko batzuk odoletan.

36 **EXT. TOLOSAKO HILERRIA. HILARRI KALEAK / HILOBIA. EGUNA**

Senideak hilobien kaleen artetik doaz, hilkutzak lepoan hartuta batzuk, besteak segika lore sortak eskuetan. Hilobiaren inguruan bilduta, hilkutzak jaisten ari dira. Zuloan bi hilkutzak, bata bestearen parean, loreak gainera erori ahala.

37 **INT. IÑIGOREN BILERA GELA. EGUNA**

VELAZQUEZEN argazkiaren Lehen Planoa. Argazkia Fedek daukan txosten itxurako batean dago.

IÑIGO (V.O.)
José María Velazquez Soriano...
Baina horrek ez al zeraman Mistral
sare informatikoa?

Iñigo eta Fede txostenaren gainean makurtuta daude. Mahaian karterak, txostenak, eta zenbait errotuladore.

FEDE
Bai, errefuxiatu eta susmagarrien
informazioa biltzen zuen. Baina,
kontatzen duenez, Galindok
konfiantzazko talde honetara sartu
zuen...

38 **INT. FLASHBACK: GALINDOREN ETXEA. EGUNA**

Gain-inpresioz **1983ko Iraila**

Gizon gazte batzuk sartzen ari dira egongela batera guardia zibil jantzita, batzuk eseri eta besteak zutik geratzen direlarik. Besteak beste, Vaquero, Bayo, Dorado, Marrero eta Velazquez, dozena bat osatu arte.

IÑIGO (V.O.)
Galindoren etxera ez zen edonor
sartzen. Hasieratik bazekiten
garrantzizko zerbait prestatzen ari
zela.

Denek, tente jarrita, agur militarra egiten dute GALINDO sartzen denean, bera ere uniformeaz jantzita.

GALINDO

Buenas tardes a todos. Quiero que escuchéis con total atención lo que voy a deciros... Os he citado aquí para comunicaros que hemos recibido una orden del Gobierno de la Nación. Hemos sido elegidos para dar puñaladas a ETA.

(ETEN EGITEN DU)

Se trata de pasar a Francia y hacer allí lo mismo que hacemos aquí. No de forma legal porque no se puede hacerlo así, no usaremos uniformes ni armas reglamentarias. Que os quede claro que tenemos cobertura oficial para ello (...) Si alguno no quiere seguir adelante, puede irse libremente, ahora es el momento.

Denek elkarri begiratzen diote. Bat altxatu eta irten egiten da batzuen mespretxuzko keinuek jarraituta.

GALINDO (CONT'D)

No esperaba menos de vosotros, hijos míos. Esta es una guerra de tenacidad, pero nuestra estrategia de combate nos llevará a la victoria porque, recordad, España entera resiste con vosotros. Es una misión histórica y sé que vais a responder.

39 INT. IÑIGOREN BILERA GELA. EGUNA

Iñigok eta Fedek txostena aztertzen jarraitzen dute.

FEDE

(IRAKURTZEN)

Segidan, Velazquez ekintzetara aldatu omen zen. Atentatu batzuetan parte hartu izana aitortu du, txofer bezala, Dorado eta Bayorekin.

Iñigo hormara bihurtzen da. Han arbel magnetiko zuri bat dago. Goiko aldean, Galindoren argazkiaren fotokopia, errotuladorez "Galindo" izena daukana. Beheko aldean dozena bat folio daude itsaski magnetikoz eutsita, errotuladorez idatzitako izenekin, multzatuta eta elkar estaliz. Ez ditugu izenak ondo ikusiko, baina hor daude **Vaquero**", **Del Hoyo**", **Barez**", **Marrero**", **Dominguez Tuda**" **Macías**", **Romero**" eta azkena **Hermida**". Baita Iñigok banatu eta gorago eramaten dituenak, Galindoren azpi-azpian jarriz: **Bayo**", **Dorado** eta **Velazquez**".

Gero pauso bat urruntzen da hobeto ikusteko.

FEDE (O.S.) (CONT'D)

A ze izen nahastea!

IÑIGO (O.S.)

Bai, hau argitzen ez dugu lan makala izango, baina hemen aurrean dauzkagu Joxean eta Joxi bahitu zituztenak. Orain bakarrik frogatu behar da.

FEDE

Ba, frogatu ahal izateko, ezer gutxi dago oraingoz. Velazquezek aitortu duenez biak sare informatikoan fitxatuta zeudela, besterik ez.

IÑIGO

Beste hamaika mila bezala. Hori ez da nahikoa. Eta beste deklarazioa?

Mahai gaineko txostenei begira egin du galdera. Fedek orri batzuk bilatzen ditu.

FEDE

Pedro Gomez Nieto. Cesidekoa zen, eta Intxaurrendora bidali zuten taldearen irakasle moduan. Saltsa honen berri jakin zuenean, alde egiten saiatu zen baina Madrilen bertan jarraitzeko agindu zioten...

Federen laburpena ON eta O:S: entzungo dugu. Bitartean, Iñigok beste folio batean idatzi eta arbeleko multzo nahasian jarriko du "**Gomez Nieto**" izenarekin.

FEDE (CONT'D)

Laurogeita hiruko Iraila amaieran, bere burua babesteko asmoz, Galindorekin izandako bilera bat grabatu omen zuen... Taldea operatzen hasteko prest al zegoen jakin nahi zuen Galindok... hurrengo astean, Urrian.

Biak arbelera begira daude, hausnar.

IÑIGO

Zer daukagu, beraz? Bi deklarazioek elkar bermatzen dute Gal berdeari dagokionez. Badakigu Galindok osatu zuela eta ekintza ilegalak agindu zituela, beharbada goiko norbaiten aginduari jarraituz.

Beste folio bat hartuta, "?" galdera marka idatzi eta Galindorenetik gorago jarriko du.

IÑIGO (CONT'D)
 (GALDERA MARKA SEINALATUZ)
 Arazoa da, goiko hauek elkar
 babesten dutela, eta euren azpikoak
 babestea ere komeni zaiela.

FEDE
 Ez da erraza izango erruduna nor
 den jakitea.

IÑIGO
 Erruduna nor den? Hemengo guzti-
 guztiak zerbaiten errudunak dira,
 Fede, ez egin zalantzarik.

Tonu gogorrek ezustean harrapatzen du Fede, erreakziorik gabe
 utziz. Iñigok, bere aztoramendua nabaritzen du:

IÑIGO (CONT'D)
 Pazientzia beharko dugu. Katearen
 mailarik ahulena jo, eta jo, eta
 jo, hautsi arte.
 (BEHEKO ALDEA SEINALATU
 ONDOREN O. S.)
 Eta mailarik ahulena peoi arruntak
 dira. (ON) Honekin zerikusia duen
 edonor Entzutegi Nazionaletik
 pasatzea nahi dut.

Basatasun puntu bat piztu zaio begietan.

40 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. PASILLOA. EGUNA**

Epaiketa-areto baten aurreko pasilloa hutsik dago, hondoko
 atea zaintzen duten bi poliziak izan ezik.

EPAILE INSTRUKTOREA (O.S.)
 Angel Lopez Carrillo, de 38 años,
 oficial del Cuerpo Nacional de
 Policía. Afirma usted comparecer a
 petición propia. ¿Es eso correcto?

41 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. EPAIKETA-ARETO TXIKIA. EGUNA**

Hiru mahai daude, ate nagusikoa izan ezik beste hiru ormetan
 lerrokatuta: erdikoan EPAILE INSTRUKTOREA, eta ondoan bere
 Idazkaria (gizonezkoa). Mahaian idazmakina bat dago. Euren
 atzean, albo batean, ate txikiago bat eta espainiar bandera
 bat metalezko haga batean zutik. Albo bateko mahaian, Iñigo
 eta Fiskala, beste albokoan ABOKATU bat. Erdian eserita,
 LOPEZ CARRILLO (38 urte).

CARRILLO
 Sí, señoría.

EPAILE INSTRUKTOREA

Y declara usted en virtud de que, en 1983, era el asistente de confianza del gobernador civil de Guipuzcoa, Julen Elgorriaga. ¿Se encontraba con él la noche del 15 de Octubre, cuando desaparecieron Jose Antonio Lasa y Jose Ignacio Zabala?

CARRILLO

Sí, señor (...) Esa misma tarde se había producido en Oñate un atentado contra una furgoneta de la Guardia Civil. El chofer del gobernador tenía el día libre y yo me ofrecí a llevarle...

42 **EXT. FLASHBACK: ARRASATEKO OSPITALA. GAUA**

Carrillo, orain 26 urtez, zain dago auto ofizialaren ondoan (Ford Granada bat), Arrasateko ospitalearen aurrean. Gain-impresioz hauxe irakurtzen dugu:

Oñati, 1983ko Urriaren 15a

ELGORRIAGA eta GALINDO hurbiltzen dira, berriketan. Azken hau uniformez jantzita dago eta, atzerago, guardia zibil batek jarraitzen die. Autoaren parera iristean, Elgorriagak zerbait diotso Galindori, autoa seinalatzen. Honek baietz egin eta atzean datorren guardiari zerbait azaltzen dio.

CARRILLO (V.O.)

Por eso fui yo a recogerle al hospital de Mondragón. También el comandante Galindo estaba allí, y el gobernador se ofreció a llevarle de vuelta en nuestro coche...

43 **INT. FLASHBACK: FORD GRANADA. GAUA**

Autoa errepidean doa. Carrillo gidari, atze aldean Elgorriaga eta Galindo, irratiak hots egiten duenean.

IRRATI AHOTSA (O.S.)

Gobernador Uno, Gobernador Uno, aquí central San Sebastián. ¿Estás a la escucha? Cambio.

Carrillok mikrofonoa hartzen du erantzuteko.

CARRILLO

Gobernador Uno al habla. Te copio, Central, ¿qué hay? Cambio.

IRRATI AHOTSA (O.S.)
 Tenemos un aviso de AT Uno para
 Jota Uno. Repito: de AT Uno para
 Jota Uno. Confírmame si está ahí.
 Cambio.

CARRILL
 ¿Jota Uno? ¿Quién...?

Galindok aurrera egin eta eskua sorbaldan jartzen dio.

GALINDO
 Yo. Jota Uno soy yo.

CARRILLO
 Ah, perdón, mi comandante.
 Atención, Central, confirmado: Jota
 Uno está a la escucha. Cambio.

IRRATI AHOTSA (O.S.)
 Recibido. Jota Uno debe llamar
 urgentemente al cuartel de
 Intxaurren. Cambio y corto.

Galindok eta Elgorriagak elkarri begiraten diote.

44 **EXT/INT. FLASHBACK: PLASENTZIAKO UDALETXEA. GAUA**

Autoa aparkatuta dago orain. Barruan Carrillo eta Elgorriaga,
 isilik. Plasentziako udaletxearen aurrean daude, atetik
 Galindo agertzen denean. Elgorriagak eskukada ematen dio
 Carrillori sorbaldan, martxan jartzeko seinale moduan. Gero
 Galindorengana bihurtzen da, galdera airean.

GALINDO
 Buenas noticias de Francia, han
 picado dos peces en el anzuelo.

ELGORRIAGA
 ¿Peces gordos?

GALINDO
 Más bien medianos, pero mejor eso
 que nada. Ya se los traen para acá.

45 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. EPAIKETA-ARETO TXIKIA. EGUNA**

EPAILE INSTRUKTOREA
 ¿Sabe usted adónde se los llevaron,
 señor Carrillo?

CARRILLO
 Al palacio La Cumbre, de San
 Sebastián.

Carrillok eten egiten du ur pittin bat edateko.

CARRILLO (CONT'D)

Poco tiempo antes de eso, me habían dado las llaves con la orden de inspeccionar las dependencias del palacio...

46 **EXT. FLASHBACK: LA CUMBRE. SARRERA. EGUNA**

La Cumbre jauregiaren KOKAPEN-PLANOA. **DETAILEA:** giltza bat sarraila batean sartzen. Giltzatakoa metalezko eraztun bat da, eta beste bi giltza zintzilik ikus daitezke.

47 **INT. FLASHBACK MUNTAIA: LA CUMBRE. EGUNA**

Carrillo gela zabal baten atean dago. Izaraz estalitako sofa eta besaulkiak direla eta, egongela dotore izanaren itxura dauka. Errotuladore lodi baten laguntzaz, zoruan "1" zenbaki lodi bat idazten ari da...

CARRILLO (V.O.)

Tenía que seleccionar las tres habitaciones que me parecieran en mejor uso, y dejarlas indicadas. Era evidente que estaban planeando algún tipo de acción secreta...

Zenbait planotan Carrillo pasilloetan barrena ikusten dugu, harik eta beste bi gela aukeratu eta ateburuetan 2 eta 3 zenbakiak idazten dituen arte.

48 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. EPAIKETA-ARETO TXIKIA. EGUNA**

CARRILLO

... Por eso, tres días después de haberles llevado a él y a Galindo en el coche, cuando la desaparición de Lasa y Zabala estaba en todas las noticias, pregunté al gobernador si los dos peces eran ellos.

EPAILE INSTRUKTOREA

¿Y qué le respondió?

49 **INT. FLASHBACK: LA CUMBRE. EGONGELA. GAUA**

47. sekuentziako "1" egongelan gaude. Joxi zutik dago, Joxean berriz bazter batean, erradiagailu bati lotuta, izuak eraginda. Bayoren aginduren bati erantzunez, beldurrak eraginda, arropak erantzten hasi da Joxi.

CARRILLO (V.O.)

Me dijo: "sí, claro". Y me contó también que aquella primera noche habían ido a verles en La Cumbre...

Doradok pistola buruan jartzen dio Joxiri, eta gero kendu, gaztea biluztu eta barrabilak eskuez estaltzen geratu arte.

BAYO

¿Tú qué te tapas, gilipollas? ¿Te crees que somos maricones como vosotros?

DORADO

Ja ja, pues mira por donde, este culito...

(JOXIREN IPURDIA HAZTATZEN DU)

Eh, no te me pongas cachondo que tengo pareja.

Bayok belarriostekoa ematen dio. Joxik ez zuen kolpea espero.

BAYO

A ver, atontado de los cojones, ¿estás sordo o qué? Que quites las manos, coño, a ver qué tienes ahí.

Joxik ez du obeditzen eta Bayo suminak hartzen du.

BAYO (CONT'D)

Te gusta hacerte el gudari duro, ¿verdad? ¿Quieres que te deje ciego, o tonto para toda la vida y sin dejar una marca, eh?

Erpuruez Joxeanen bi belarrien azpian sakatzen du. Honek garrasi egiten du minaren minez eta eskuaz hara altxatzen ditu askatu nahian. Joxean begira dago beldurrez dardarka.

DORADO

(JOXEANI)

¿Tú has sido el que ha dado antes en el coche diciendo lo de "vaya, vaya"? Pues espérate que ahora empezamos contigo.

(JOXIREN BARRABILAK SEINALATUZ)

¿Esa mierdita es lo que tapabas? Pero si tienes que buscártela con lupa, coño, que eso no es una minga, es una puta miniatura.

Joxik beste belarriosteko bat jaso eta zabuka egiten du.

DORADO (CONT'D)

¿A tí quién te ha dicho que te desnudes? ¿Eh?

(MORE)

DORADO (CONT'D)
 (BESTE ZARTADA BAT)
 ¡Que te vistas, cojones!

Joxi, malkoei eutsi ezinik, makurtu eta arropak hartuta, janzten hasten da. Ate parean Galindo eta Elgorriaga agertu dira eta argi eskasak markatzen duen mugan geratzen dira, aurpegiak ilunpean dauzkatela. Doradok hara hurbildu eta agur militarra egiten du.

GALINDO
 Buen trabajo, valientes, decídselo de mi parte al resto del grupo. Y recordad que hay que mantenerlos desorientados.

DORADO
 Sí, mi comandante.

Joxik ezin du eragotzi Galindori begirada arin bat ematea.

BAYO
 ¿Qué te pasa, buscas a alguien?
 ¿Eh, buscas a alguien, cabrón?

Zaplaztekoa ematen dio, are amorratuago.

GALINDO
 Dorado, esta noche mantenedlos así. Mañana los ponéis separados en los otros cuartos y ya empezáis los interrogatorios.

ELGORRIAGA
 Joder, menuda sarta de hostias.

Bayok Joxiri muturrekoak eta ostikoak ematen jarraitzen du.

GALINDO
 A estos hay que tratarlos así, si no podemos estar hasta Navidades.
 (DORADORI)
 ¡Venga, échale el freno a ese zumbado!

DORADO
 A la orden.

Joxi erdi alditxartuta dago eta sudurretik odola dario Dorado inguratu eta Bayori besoa eusten dionean.

DORADO (CONT'D)
 Eh, venga, para de atizarle, a ver si te lo vas a cargar antes de que cante nada.

BAYO

Joder, es que me ha sacado de quicio, tanto quejarse el muy cabrón. Que se queje cuando matan a gente, no te jode.

50 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. EPAIKETA-ARETO TXIKIA. EGUNA**

IÑIGO

Señor Lopez Carrillo, todo lo que cuenta suena muy convincente pero es solo su palabra. ¿Tiene algún tipo de prueba que lo refrende, un documento, una grabación...?

Carrillok bere abokatuari begiratzen dio zeharretik, eta honek baietz egiten dio. Orduan eskua patrikara sartu, berriro atera eta zerbait jartzen du mahaian, epailearen aurrean. Hiru giltza dira, metalezko eraztun batean.

CARRILLO

Espero que esto sea suficiente.

EPAILE INSTRUKTOREA

¿Qué llaves son?

CARRILLO

Las del palacio La Cumbre. Me dijeron que las devolviese pero las he guardado durante doce años.

51 **INT. IÑIGOREN BILERA GELA. EGUNA**

Iñigoren eskua Elgorriagaren argazkia eta izena, "**Elgorriaga**", jartzen ari da arbelean, Galindoren aldamenean. Gorago, "?" galdera markak jarraitzen du. Azpian, Bayo eta Dorado bakarrik, hauen paretik Velazquez kendu eta beherago jartzen ari baita beste guztiekin batera, batzuk besteen gaineratik erdi pilatuta eta baztertuta antzean, arbeletik kanpora zintzilik.

FEDE

Horra, panorama pixka bat argitu dugu, ezta? Orain artean, aitorpen guztiek bat egiten dute.

IÑIGO

Eta horrek lauon inputazioa eskatzeko bidea ematen digu.

Arbeletik pauso pare bat urrundu eta begira geratzen da, besoak gurutzatu, pentsakor.

IÑIGO (CONT'D)

Hala ere, ez dut oso argi ikusten.
Denak dira entzunezko aitordenak,
inork ez du ezer bere begiz
ikusisi...

(FEDERI BEGIRA)

Fede, lekuko zuzen bat beharko
genuke. Eta hori lortzeko bide
bakarra, presioa ematen jarraitzea
da, hauetako batek kraska egin eta
aitortu arte.

FEDE

Horregatik, Intxaurrendoko putzu
beltzean eragiten jarraitu beharra
dago.

IÑIGO

Ba, putzu beltzean gauzak oso ilun
daude.

Fede mahaiari dauzkan orriak banan-banan ikuska hasten da:

FEDE

Koadrila horretako batzuk erbestean
dabiltza, lanpostu diplomatikotan.

IÑIGO

Bai kasualitatea.

FEDE

Beste batzuk toki ezezagunetan
daude eta Guardia Zibilak ez du
laguntzen... Eta batek bere burua
hil zuen duela zortzi bat urte.
Carlos Jo...

IÑIGO

Egon, egon, egon. Nola, bere burua
hil?

Orri bat banatzen du Fedek eta, buelta emanez, Iñigori
helarazten dio mahai gaineratik. Fitxa modukoa da, guardia
zibil gazte baten argazkia dauka eta ondoan izen bat:
"Marrero Sanabria, Carlos José". Bitartean, Fedek bere
paperetan irakurtzen du:

FEDE

Carlos José Marrero. Laurogeita
seian atentatu bat jasan zuen, bere
kidea hil zen eta bera larri
zaurituta gertatuz. Depresioek jota
baja hartu zuen... beste guardia
bati pistola kendu eta ahoan tiro
egin zuen. Hemen kontaktu bat dago.
Neskalaguna zuen Madrilen... eta
hil baino egun gutxi aurrerago
berarekin egon zen.

IÑIGO

Madrilen... Nork daki, baliteke zerbait interesgarria kontatzea, ezta?

Fedek kafe kikara hartzen du baietz egin ahala. Gero apur bat edaten du.

52 **EXT. IÑIGOREN DESPATXOA. ATARIA. ILUNTZEA**

Irteten dira etxetik Iñigo eta Fede eta, elkar agurtzean darabilkion gaia ateratzen du:

FEDE

Aizu, egun hartan esan zenuen hura... denak zerbaiten errudunak direla, gogoratzen?

IÑIGO

(SORBALDAK UZKURTUZ)

Hala dira, noski. Zergatik?

FEDE

Frogatzeko modua izango dugula uste al duzu?

IÑIGO

Aber, Fede, benetan, zuretzat tipo horiek errudunak dira, ala ez?

FEDE

Noski. Baina sineste hutsarekin ez goaz oso urrutira. Epaiketa batean kondenatzeko, lehenik frogatu beharra dago.

IÑIGO

(ASALDATUTA)

Frogatuko dugu, joder!

FEDE

Eta ezin badugu, Iñigo? Ezin badugu frogatu, zer?

Iñigok ez du erantzuten. Begi bistan dago orain arte ez zaiola halako galdera inoiz bururatu. Orduan badoa kalean aurrera.

53 **INT. HOTEL BUFFET-MADRIL. EGUNA**

Iñigo bazterreko mahai batean eserita dago ANA sartzen denean. Honek bere ingurura begiratzen du, bila, eta Iñigok, nor den nabarituta, zutik jartzen da irribarreka. Ana (35 bat urte) ezbaikor hurbiltzen da eta Iñigok bostekoa ematen dio.

IÑIGO

¿Cómo estás, Ana? Soy Iñigo... He preferido citarte aquí en el hotel, vamos a estar más tranquilos.

Anak irribarre leun bat eskaintzen dio, oraindik ezeroso. Agerian da kosta egin zaiola pauso hau ematea... Bizpahiru minutu igaro dira eta Ana kontari ari da:

ANA

Yo entonces ni siquiera había oído hablar de Lasa y Zabala. En aquel momento pensé que Carlos estaba confundiendo cosas, desde el atentado tenía problemas y seguía un tratamiento. Pero ahora lo veo en las noticias y... No puedo quitarme la angustia...

IÑIGO

Mira, Ana, no debes tener miedo de nada. Si hay algo que quieras contar, hablaremos con el juez y te pondrán protección para tu tranquilidad.

Ana begira geratzen zaio, kontatu ez kontatu, eta hasten da:

ANA

Carlos vino a verme por Navidades, unas dos semanas antes de su muerte. Estaba cada vez peor y en sus últimas visitas siempre me contaba cosas raras. Algunas eran como pesadillas, pero esta tenía algo...

54

INT. FLASHBACK: ANAREN EGONGELA. EGUNA

Carlos Jose Marrero, orain 28-30 urterekin, Anaren alboan eserita dago, sofa batean. Erabat utzita eta deprimituta dago. Afari legea hartzen ari dira telebistaren aurrean. Marrero neskarengana bihurtzen da tupustean, ideia batek jota. Bien bitartean, gain-inpresioz:

1987ko Abenduaren 28a

MARRERO

Hay que contarlo, Ana, hay que contarlo.

ANA

¿El qué, Carlos?

MARRERO

Aquellos dos chavales. Los matamos, yo estaba allí.

Ana beldurtzen hasi da.

ANA

Quieres decir que mataron a tu
compañero y casi te matan a ti.

MARRERO

¡No es eso! Lasa y Zabala, los dos
vascos que desaparecieron, joder...
Tengo que contarlo, Ana, no quiero
seguir viviendo con eso dentro, es
necesario contar todo lo que pasó.

Eten egiten du begiak malkoz bete zaizkiolako.

MARRERO (CONT'D)

Los llevamos muy lejos, a un lugar
descampado, en pleno monte. Fuimos
en dos coches y luego anduvimos
hasta el lugar. El capitán me
ordenó a mí matarlos. Pero me
negué. ¡Me negué! Entonces otro
compañero les disparó a los dos en
la nuca. No eran más que unos
críos.

Makurtuta dagoela, Anak garondoko ilea laztantzen dio.

ANA

No entiendo lo que me cuentas,
Carlos, pero estás vivo y eso es lo
que importa...

Marrerok izkin egiten dio eta zutik jartzen da, etsi-etsian.

MARRERO

No me crees, ¿verdad? Piensas que
es una locura de las mías, pero no
lo es. ¡Yo quería ser un héroe,
pero me convirtieron en un canalla!

Oso asaldatuta irteten da eta atearen danbada entzuten dugu.
Ana lur jota dago, negar egiteko zorian.

55

INT. HOTEL BUFFET/MADRIL. EGUNA

IÑIGOK eta Anak lehen bezala eserita jarraitzen dute.

IÑIGO

¿Crees que decía la verdad? Quiero
decir... estamos hablando de una
persona con problemas de salud
mental y que estaba en tratamiento.

ANA

Tuve mis dudas, claro, yo no le
encontraba sentido a aquello.

(MORE)

ANA (CONT'D)

Pero, por otro lado, sé cuando Carlos fantaseaba, lo conocía muy bien y esto era diferente. No estaba inventando nada, lo torturaba de verdad, ahora lo sé... Si le hubiera creído tal vez no se habría...

IÑIGO

Suicidado.

Anak ezin die malkoei eutsi eta burua makurtzen du.

IÑIGO (CONT'D)

Ana, lo siento mucho, de verdad, pero aún tienes la oportunidad de hacer lo que él quería.

ANA

¿El qué?

IÑIGO

Contarlo. Puedes contárselo al juez.

Anak burua altxatzen du eta begira geratzen zaio.

56

EXT. MUNTAIA: ENTZUTEGI NAZIONALA. SARRERA. EGUNA

Entzutegi Nazionalaren aurrean, IRATXE kamerari mintzo da.

ERROTULUA: 1996ko Apirila.

IRATXE

Gaur Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore ohiaren txanda izan da agertzekoa, eta honako adierazpenak eskaini dizkigu Entzutegi Nazional honetara heltzean...

MOZTU toki berberera, tarte bat aurrerago. Kazetariak Elgorriaga inguratuta daukate mikrofonozko hesi baten barruan.

IRATXE (O. S.) (CONT'D)

Señor Elgorriaga, ¿qué puede decirnos sobre las informaciones que le implican en la muerte de Lasa y Zabala?

Elgorriaga seguru eta lasai agertzeko ahalegintzen da.

ELGORRIAGA

No puedo decirles nada al respecto. Por el momento solo sé lo que he leído en la prensa, ni siquiera estoy imputado, por eso vengo a personarme como parte en el sumario y así poder conocer bien las acusaciones antes de opinar sobre ellas.

IRATXE

El próximo mes de Mayo el juez tiene previsto un careo entre usted y el testigo Lopez Carrillo. ¿Rechaza usted sus acusaciones?

ELGORRIAGA

Como ya les digo, las he leído en la prensa y son una mentira de arriba abajo.

1. KAZETARIA

¿Por qué cree entonces que las ha hecho?

ELGORRIAGA

Supongo que se trata de una venganza personal del policía. Es posible que me culpe del fracaso de una relación personal que mantuvo durante su estancia en San Sebastián. Muchas gracias.

Elgorriagak bidea irekitzen du kazetarien artetik.

MOZTU hasierako planora, Iratxe kamerari begira dagoela.

IRATXE

Aipatutako buruz burukoa heldu bitartean, hurrengo egunetan beste agertze batzuk izan dira, besteak beste, eta nabarmenki, Rodriguez Galindo jeneralarena eta Enrique Dorado eta Felipe Bayo guardia zibilenak.

57

INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. PASILLOA. EGUNA

Epaiketa-aretoko atearen aurrean Felipe BAYO eserita dago. Aretoa, gainontzean, hutsik dago bi ateen aurrean zaindari dauden bi polizia pareta izan ezik. Bayo urduri dago, areago bulegoko atea irekitzen denean. Poliziek barrura begiratu eta, seinale bati erantzun antzean, barrura sartzen dira. Bayo tente jarri da. Segidan poliziak irten egiten dira DORADO eramanez, atzetik Argote datorrela. Bayok azkenari begiratzen dio, galdera airean, hau bekozkoa jarrita hurbiltzen zaionean.

ARGOTE

Se lo llevan. Ha decretado prisión.

BAYO

Entonces también a mí. Me cago en su...

ARGOTE

Escucha, tú no pierdas la cabeza, ¿de acuerdo? Sabes lo que tienes que declarar, de ahí no te salgas ni una coma.

Bayo zutik jartzen da bulegorantz abiatzeko.

58

INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. EPAIKETA-ARETO TXIKIA. EGUNA

Bayoren deklarazioa indarrean da. Alde batean Argote, bestean Iñigo eta Fiskala. Buruko mahaian, Epaille Instruktoarea eta Idazkaria. Mahaietan paperak, ura eta edalontziak.

EPAILE INSTRUKTOREA

... en mil novecientos ochenta y siete causa baja definitiva en la Guardia Civil con el grado de cabo debido a problemas psicológicos, por los cuales se le concede una pensión...

(ETEN EGINEZ HURRENGOA
IRAKURTZEKO)

A pesar de lo cual consiguió que el Secretario de Estado para la Seguridad le pagara un curso de aviación en Estados Unidos. Y un tratamiento en la clínica Lopez Ibor. Y ambas cosas fueron gestionadas por el señor Argote, su abogado aquí presente.

Bayo sutsuki erantzuten hasten da, baina Argotek eskua altxatzen dio isilarazteko.

BAYO

¡No me toques los...!

ARGOTE

Disculpe a mi defendido, señoría, tanta presión está afectando a su estado de salud.

EPAILE INSTRUKTOREA

Voy a disculparle solo por esta vez, se lo advierto, letrado. Responda a esto, señor Bayo: ¿Aprender a volar era parte de su tratamiento?

(MORE)

EPAILE INSTRUKTOREA (CONT'D)

¿Tan mal está la sanidad pública que hubieron de financiarle una de las clínicas más caras del país?

Argotek ez dio Bayori erantzuteko astirik ematen eta honek bere amorrua irensten du.

ARGOTE

Señoría, en aquella época yo me encargaba de gestionar este tipo de compensaciones, que eran habituales para agentes que habían participado en la lucha antiterrorista.

BAYO

Nuestro trabajo en las Vascongadas era muy duro.

FISKALA

Comparada con otras compensaciones, la suya, señor Bayo, tiene todo el aspecto de un trato de favor, y bastante sospechoso a la luz de las acusaciones que pesan sobre usted.

(PAPERAK IKUSKATUZ)

El policía Lopez Carrillo lo sitúa, junto con Dorado, en La Cumbre la noche del secuestro... Hay testigos protegidos que acusan a Dorado, Vaquero y a usted mismo del secuestro y el asesinato de Lasa y Zabala. Secuestro y asesinato, señor Bayo.

Bayo ezerosoago dago, tenperatura apurka igotzen ari zaio.

BAYO

Testigos protegidos, ya, unos jetas que salen en programas de la tele acusando a los compañeros por la cara a cambio de un montón de pasta. ¡Que se lo han inventado todo, coño!

EPAILE INSTRUKTOREA

¡Señor Bayo, por última vez, ni una salida más de tono o se va a la cárcel inmediatamente!

IÑIGO

Trastorno bipolar.

Bayo ustekabean hartu du honek.

BAYO

¿Cómo?

IÑIGO
(IRAKURTZEN)

Trastorno afectivo bipolar con alternancia de episodios depresivos con otros de hipertimia o hipomanía... Esta es su enfermedad, ¿no? Acabó así después de su servicio en el País Vasco. Aquello era muy duro, una lucha a vida o muerte. Tal vez le tocara hacer cosas un poco... desagradables, incluso graves, por la obediencia debida. Cosas como hacer daño a los detenidos, aplicarles electrodos, asfixiarles con bolsas... ¿Le ordenaron también llevárselos a un sitio apartado y eliminarlos, señor Bayo?

Bayoren gorroto eta sumina areagotuz joan dira, eta azken galderarekin zutitzeko eta Iñigorengana oldartzeko plantak egin ditu, baina Argoteren ahotsak geldiarazi du.

ARGOTE

Mi cliente sufre del síndrome del Norte. Seguro que el abogado de la acusación ya conoce ese concepto debido a la cantidad de terroristas a los que ha defendido.

IÑIGO

Es usted quien tiene gran experiencia defendiendo a terroristas, señor Argote, pues su cliente ya fue condenado hace solo dos años por torturas junto con su también cliente, el señor Dorado.

(BAYORI)

A lo que podemos añadir, entre otros, el incidente en una discoteca en el que disparó usted su arma reglamentaria.

BAYO

(MARMARKA)

Puto cabrón...

IÑIGO

¿Cómo?

EPAILE INSTRUKTOREA

Ya basta. Si las partes han formulado ya todas sus preguntas, podemos dar por terminada la comparecencia y pasar a la sesión de peticiones.

Bayok Iñigori adi-adi eta suminez begira jarraitzen du.

59 **INT. KAFETEGIA. EGUNA**

Fede barraren aurrean eserita dago, zerbait edaten eta txosten bat irakurtzen. Iñigo heldu eta ondoan jartzen da, barran makurtuta. Pozik dagoela nabaritzen dio Fedek.

FEDE

Eta? Gaizki ez, antza.

IÑIGO

Oso gaizki ez. Aukera garbiak ditugula uste dut. Eta epaileak Bayorena onartzen badu, derrigor onartu beharko ditu hurrengoak. Gauzak gure alde makurtzen hasi dira.

FEDE

Kontraerasoa egingo dutela uste al duzu? Jende arriskutsua dira eta...

IÑIGO

Bah, lasai, aginak galtzen hasi dira, zaunka egitea besterik ez zaie geratzen.

60 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. EPAIKETA-ARETO TXIKIA. EGUNA**

Vistilla izenekoa indarrean da areto berean. Denak lehengo tokietan daude, eta Fiskala mintzo da eserita badago ere.

FISKALA

... y por estas consideraciones, solicito de su señoría el encarcelamiento del imputado Felipe Bayo.

EPAILE INSTRUKTOREA

Muchas gracias, señor fiscal. Es el turno de la acusación particular.

Iñigok paper bat hartzen du baina ez du irakurri beharrik.

IÑIGO

Señoría, tanto por la gravedad de las acusaciones como por los antecedentes del imputado, solicito para él la prisión incondicional...

BAYO

¿Qué coj...?

Argoteri begiratzen dio, berma bila edo auskalo. Abokatuak begirada adierazgabea itzultzen dio. Adierazgabea.

IÑIGO

... Téngase en cuenta, señoría, que se trata de un personaje violento e irascible, inestable, sin arraigo social, al que sus propios compañeros temían...

Bayok gainez egiten du eta, suminaren suminez, jauzi egiten du Iñigo jotzera.

BAYO

¿Sin arraigo? ¡Te voy a dar yo arraigo, hijoputa, etarra de mierda! ¡A hostias te lo voy a dar! ¡Ven aquí si tienes cojones!

Iñigo zutik jartzen da Bayok ematen dion zartadari ozta-ozta izkin eginez, eta mahai ostetik ihesi doa Bayo segika doakiolarik. Aretoko bazterrera heldurik epailearen mahai ostetik jarraitzen du. Bayok, garrasika egiteari utzi gabe, hango bandera hartu eta eraso egiten dio. Epailea eta idazkaria zutitu dira izututa.

EPAILE INSTRUKTOREA

¡Guardias! ¡Guardias!

Iñigo Argoteren mahai ostera urrundu dela ikusirik, Bayok bandera zorura botatzen du amorrusuz marmarka. Bayok orduan idazmakina begiztatu eta, hara hurbilduta, makina altxatu eta areto erdira jaurtikitzen du hain juxtu bi polizia sartu eta geldiaraztera dozenean.

BAYO

¡Te mato, hijoputaaa!

Poliziek une horretan heltzen diote eta eskuak atzean lotzen dizkiote, berak kontrarik egin gabe. Iñigok musu-zapia atera eta ezpaina igurzten du, bere aldamenean eserita jarraitu duen Argotek, irribarre burlati bat eskaintzen diolarik.

EPAILE INSTRUKTOREA

Espósenlo. Señor Bayo, se lo he advertido, va a ingresar de inmediato en prisión y aguardará allí mi decisión.

Poliziek kanporantz bidaltzen dute Bayo.

IÑIGO

Señoría, ya lo ha visto: alguien capaz de hacer algo así, ¿qué no será capaz de hacer en la impunidad de una celda aislada?

Argotek etsipenezko keinua egiten du ("a ze demagogo"). Iñigok desafiozko begirada bidaltzen dio.

61 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. PASILLOA. EGUNA**

Fede zain dago pasilloan, maletina aldamenean irekita, agiri batzuk irakurtzen, atea ireki eta Bayo irteten da, eskuak atzean lotuta, bi poliziek.

Fede zutik jartzen da, zain, Iñigo agertu eta berarengana etorri arte. Fedek berehala nabaritzen du ezpaineako marka.

FEDE

Zer gertatu da hor barruan?

IÑIGO

Gerra batean gaude... eta lehenengo bataila guk irabazi dugu.

62 **EXT. MUNTAIA: ENTZUTEGI NAZIONALA. SARRERA. EGUNA**

Lehenengo erreportari bera, Iratxe, toki berean, aste gutxi batzuk beranduago.

IRATXE

Sumarioa bere azken txanpan sartu denean, azken asteotan izan diren agertze eta deklarazio guztietatik, beharbada Rodriguez Galindo jeneralarenak harrotu du arreta eta ikusminik handiena...

Galindo sarrerari bizkar eginez, kazetari uholdeari begira.

GALINDO

Declaro por mi honor que nada tengo que ver con los hechos que se me imputan. Además, estoy convencido de que ninguno de mis subordinados en aquella época estuvo implicado de cualquiera de las formas. Esto es todo lo que pienso decirle al juez, porque es todo lo que sé.

IRATXE

Hala ere, ez dirudi epailea oso bat dagoenik: hamar orduko deklarazioaren eta Carrilloekin buruz-burukoaren ondoren, fiskaltzako iturrien arabera, "inplikazio ezin argiakoak" egiaztatu dira eta epaileak inkomunikazio pean espetxeratzea erabaki du.

63

EXT. DONOSTIAKO KALEA. EGUNSENTIA

Etxe bateko ataria irekitzen da eta Fede irteten da. Altxatu berria dago, orraztu gabe eta harrapaladan jantzita antzean. Iñigo gertu dago egunkari batekin, eta harengana doa.

FEDE

Iñigo. Baina zer arraio gertatzen da? Ba al dakizu zer ordu den?

Iñigok burua altxatzen du.

IÑIGO

Zazpiak jota. Horra.

Egunkaria eskuan jartzen dio. Tolestuta dagoen aldean, Lasa eta Zabalaren argazki arketipikoen ondoan, honelaxe dio:

"El testigo del 'caso Lasa-Zabala' secuestrado unas horas antes de que interior le pusiera escolta"

FEDE (O.S.)

No me jodas! "El testigo protegido 1964/s"...

(ON, IÑIGORI BEGIRA)

Hau Pablo C. da, baina! Lehengo egunean deklaratu zuen lekukoa.

IÑIGO

Intxaurrondoko guardia bat salatu zuen, Joxean eta Joxi beraiek eduki zutela konfirmatuz.

FEDE

(HARRITUTA)

Baina gizon hau lekuko babestua zen, zaintza ipini zion epaileak.

IÑIGO

Etzi hasita, hain zuzen. Hala ere, bigarren mailako lekukoa da, guretzat ez dauka garrantzi berezirik... Antza denez, Cadizeko aireportura joan zen senide bati agur egitera, eta atzera bidean gasolindegia batean gelditu zen...

64

EXT. FLASHBACK: GASOLINDEGIA. GAUA

Gelditutako auto batetik Pablo C jaitsi da eta gasolina jartzen hasi. Orduan beste auto bat gelditu da berearen parean, baina berak ez du jaramonik egin. Bat-batean, buru-berokiz jantzitako tipo batek aurre-aurrean prantatu eta pistola bat jartzen dio bular parean.

Pablo C zur eta lur dago eta ez da konturatzen atzetik beste bi datozela: batek alkandora bat sartzen dio burutik, beste batek besoetatik atzerantz eutsi eta burdinez lotzen dizkion bitartean. Gero euren autoaren barrurantz bultzaka daramate.

65 **EXT. FLASHBACK: HONDARTZA. GAUA**

Lurrera eraitsi dute zaku bat bezala Pablo C. Alkandora burutik kendu diote baina oraindik besoak atzean lotuta dauzka eta garrasika hasi da. Hiru tipoek, bi erretzen ari direlarik, barre egiten dute burlati poltsikoetan arakutzen dioten bitartean. Batek, jaka barrutik paper batzuk ateratzen ditu, ireki eta besteei erakusten die. **DETALLEA:** paperean **"Audiencia Nacional de España"** irakur daiteke.

MOZTU: batek zigarroa aurpegian jartzen dio. Pablo C minez garrasika ari da, besteak berriz barreka. Batez ostikada ematen dio saihetsean, lehenengoak zigarroa berriro jartzen diolarik...

MOZTU: biren artean prakak jaisten ari zaizkio, hirugarrenak metalezko pieza bat dauka, muturrean enbolo batez amaitua. Pablo C, garrasika oraindik, ihes egiteko ahaleginak egiten ditu baina bat gainean jartzen zaio belauniko, besteak papera ahoan sartzen dio. Metalezko tramankulua daukanak makurtu eta pieza ipurtzulotik sartzen dio. Pablo C-ren aurpegiak minaren agonia jasangaitza erakusten du.

MOZTU: egunabarra zerumugan agertzen da. Hondar gainean Pablo C, konortea galduta, oraindik papera ahoan eta prakak jaitsita dauzkala.

66 **EXT. DONOSTIAKO KALEA. EGUNSENTIA**

FEDE
(KEZKATUTA)
Hara, Iñigo, halako batekin horrela jokatu badute, zer egingo ote dute besteekin?

IÑIGO
(TXUNDITUTA)
Besteekin? Hala, goazen, kafea behar duzu premia larrian.

Abian jartzen dira espaloian barrena. Fedek ez du ezabatzen kezka adierazpena.

67 **INT. IÑIGOREN BILERA GELA. EGUNA**

Fede kafea hartzen ari da. Beraren aurrean, aulki batera igota, Iñigo izen berri bat idazten ari da errotuladores, "?" idatzita daukan folio berean eta honen azpian, **"X jauna"** jarri arte.

Folia orain arbelaren goiko ertzean ozta-ozta itsatsita dago, beste hiru lerroek utzi duten leku eskasean: azpian, "Argote" eta "Vera", hurrengoan "Galindo" eta azkenean "Bayo", "Dorado" eta "Vaquero". Azpiko folio mordoa desagertu egin da.

FEDE

Zaila da, gero, horraino iristea.

Iñigo aulkitik jaisten da eta pauso pare bat urruntzen da.

IÑIGO

Beraz, laburbilduz... Argote eta Verari delitu-estalketa leporatzen zaie, baina ezer gutxi daukagu beraien aurka, gainera Cesid-eko paperen sumarioan leporatze berbera daukate. Eta besteei dagokienez...

Etsipenezko hasperen batez, eten egiten du eta kikara batean kaea zerbitzatzen hasten da, Fede mintzo den bitartean.

FEDE

Erasoak eta mehatxuak areagotu egin dira, Iñigo. Pablo C. ospitaletik irten zenetik mehatxuka eta segika ari zaizkio etengabe. Velazquezek hiltzeko mehatxuak jaso ditu, lehengo batean bi bala aurkitu zituen buzoian... eta beste hainbat.

IÑIGO

Hori guztia badakit, baina zer?

FEDE

Batzuk deklarazioa dagoeneko ezereztatu badute, gainontzeko gehienekin ezin daitekeela besterik espero. Lekukoak galtzen ari gara.

IÑIGO

(URDURITZEN HASITA)

Joder, Fede, norbait izango dugu, ba!

Fedek paperetan arakutzen du. Egunkari orri bat aurkitu eta Iñigori helarazten dio, mahaian buelta erdia emanaz. Gizon baten argazkia ikusten dugu. Pedro Migueliz TXOFO da (40 bat urte), eta azpian honako titulua:

"Txofo: noches regadas de alcohol y cocaína"

IÑIGO (O.S.) (CONT'D)

Pedro Migueliz, Txofo. Bai, telebistan irten dena. Eta?

FEDE

Dorado eta Bayorekin kontrabandoa egiten zuen eta gartzelan egona da.

IÑIGO

Bai pieza ederra.

FEDE

Eta hitzontzi galanta. Honi ere hiltzeko mehatxuak egin dizkiote eta hala ere ez da isiltzen.

IÑIGO

Baina bera ere bakarrik entzunezko lekukoa da, ezta?

Iñigo pazientzia galtzen hasi da ezintasunagatik, eta Fedek ordainduko du.

FEDE

(ESTUTUTA)

Bai.

IÑIGO

Bai, zer? Zuri zer irakatsi dizute unibertsitatean, Fede?

FEDE

Ba... beste lekuko guztiek, zera...

IÑIGO

(EZINEGON)

Beste lekuko guztiek, zer?

FEDE

Atzera egiten badute, beraren aitorpenak ez du...

IÑIGO

(ETETEN ZAKARKI)

Ez du bermarik izango, joder! Eta orduan, zer?

FEDE

Ez dugula izango ez entzunezko lekukorik ez lekuko zuzenik.

IÑIGO

Eta, lekuko zuzenik gabe, gureak egingo du.

FEDE

Beraz... epaiketara ez iristeko arriskuan gaude?

Iñigok amorrus begiratzen dio. Bat-batean, mahaiko txostenak batzeari ekiten dio, Federen txunditua begiradaz gaitzetsiz.

68 **INT. MUNTAIA: IÑIGOREN ETXEA. EGONGELA. EGUNA/GAUA**

Egongelako mahaitxoa gainez eginda dago paperez eta txostenez. Sumarioko dokumentazio bera da, Iñigo irakurtzen ari dena sofan eserita. Sumarioko deklarazioetako bat dela antzeman daiteke izenburuan "**Velazquez Soriano**"... "**Testigo protegido**"... Noizean behin zehazkizunen batean erreparatu eta gelditzen da baina, bakoitzean, hurrengo orrira pasatzen da desengainuz...

Orain zutik dago, kalera begira, pentsakor eta nekatuta. Gero beste txosten bat ikuskatzen hasten da eta bat-batean zerbaitek bere arreta erakartzen du. Zerbait aurkitu du.

69 **INT. MUNTAIA PARALELOA: IÑIGOREN ETXEA. EGONGELA / FEDEREN LOGELA. GAUA**

Fede bere logelan erantzi da, ohean sartu eta argia itzaltzen du. Segidan mesanotxean daukan telefonoak hots egiten du. Berriro pizten du argia eta begira geratzen da, nahigabetuta samar. Gero hasperenka, hartu egiten du.

FEDE

Esan?

Iñigo bere egongelan, lehengo txostena eskuan, kilikatuta.

IÑIGO

Aitor Aldanondo. Gogoratzen tipo hau?

FEDE

Eh? Iñigo? Joder, gizona, zer arraio gertatzen zaizu orain?

IÑIGO

(EKINEZ)

Aitor Aldanondo, Costa Vasca hoteleko langilea da, ezta?

FEDE

(GOGORATUZ)

Ba... bai, hala da, eta?

IÑIGO

(IRAKURTZEN)

Larogeita hiru urtean Rafael Vera, Rodríguez Galindo eta Elgorriaga atenditu zituen afaltzera... Joxean eta Joxi bahituta zeuden egunetan!

FEDE

(AURPEGIA IGURTZIZ)

A bai. Berarekin hitz egin nuen, baina ez omen zuen ezer entzun afari horretan.

IÑIGO

Edo ez du gogoratzen. Urte asko
igaro dira, baliteke ahaztuta
egotea.

FEDE

Iñigo...

IÑIGO

(ETETEN)

Aldanondo... Ez ote da izango
Añorgakoa?

FEDE

Eh? Ba... Bai, hala uste dut, baina
horrek zer...?

IÑIGO

Noski, banengoen ni...

FEDE

(ERRETA)

Zer axola du, ba, nongoa den?
Berrero galdetu nahi badiozu
alferrik zabilta, nik uste!

IÑIGO

Saiatzea daukagu, Fede. Horrekin ez
dugu ezer galduko, ezta?

Fedek hasperen egiten du, ez du onartu nahi baina gaindituta
dago.

IÑIGO (CONT'D)

Tira ba, deitu hotelera goizean
goiz, ea noiz ibiliko den handik.

70

EXT. COSTA VASCA HOTELA. GAUA

Costa Vasca hoteleko plano orokorra. Iñigo eta Fede ate
nagusitik sartzen ari dira.

FEDE (V.O.)

(ERABAT AMORE EMANEZ)

Ez, ez da galdetu behar... Gaueko
txandan lan egiten du.

IÑIGO (V.O.)

Ederki, ba hamar minutu barru
jasoko zaitut.

71

INT. COSTA VASCA HOTELA. JANGELA. GAUA

Jangelara sartzen dira eta hondoan bi zerbitzari dabilta
mahaiak afarirako atontzen.

Batek lankideari zerbait diotso eta beraien bila dator. AITOR da (35 bat urte). Bostekoak ematen dizkiote elkarri.

FEDE

Kaixo, Aitor, hau Iñigo duzu.

AITOR

Bai. Baina esan nizun aurrekoan nik ez nuela...

Iñigo ingurura begira dago.

IÑIGO

Zein da mahaia, Aitor?

AITOR

Eh?

IÑIGO

Non eseri ziren afaltzera?

Aitorrek, azkenean ulertuta, hurbileko mahai bat seinalatzen du. Iñigo hara hurbiltzen da, besteak ere segitzera behartuz.

AITOR

Hori... Elgorriaga hor eseri zen, Vera hemen eta Galindo hor, hormaren kontra. Alde guztietara begira, bere irribarre erdi harekin.

Iñigo Galindorenean esertzera doa. Orduan Fede ere esertzen da, eta Aitorrek, ezbaian, berdin egin beharra dauka.

FEDE

Hortaz, erabat ziur zaude beraiek zirela.

AITOR

Jakina, oso jende ezaguna zen, sarritan agertzen ziren telebistan eta egunkarietan. Eta... Galindo pertsonan ikusita nengoen.

IÑIGO

Eta, zer entzun zenuen, Aitor?

AITOR

Ezer ez ba, esan dizut. Mahaira hurbiltzen nintzen bakoitzean, Galindok keinua egiten zien eta denak isiltzen ziren.

IÑIGO

Egizu ahalegin bat, gizona, urteak igaro dira, baliteke zerbait entzun eta ahaztuta izatea. Kontzentratzen bazara...

AITOR
Ezetz ba... ez, aizu...

FEDE
Iñigo.

Iñigo Aitorri adi-adi begira dago.

IÑIGO
Aitor, abertzalea zara, ezta?

Aitor ustekabeen harrapatzen du. Fede ere erne jartzen da.

AITOR
Zer? Ba... bai noski.

IÑIGO
Eta zure ustez, tipo hauek Joxean Lasaren eta Joxi Zabalaren hilketen errudunak al dira?

AITOR
Bai.

IÑIGO
Orduan, imajina ezazu denak libre irtengo direla, eta munduan inork ezin duela hori galarazi... zu izan ezik...

Aitor txundituta dago, Fede berriz zur eta lur.

IÑIGO (CONT'D)
Imajina, Aitor, bat-batean afari hartan entzundako zerbait gogoratzen duzula. Zerbait larria. Egingo al duzu beste esfortzu bat gogoratzeko?

FEDE
(ZUTIK JARRIZ BAT-BATEAN)
Barkatu, irten beharra daukat!

Iñigori begirada sumin bat bota eta badoa. Aitor txundituta dago, baina Iñigok ez du jaramonik egiten.

IÑIGO
Demagun, Aitor, afari hartan Rafael Verari zera esaten entzun zeniola, "Alacanten dena prest dago, eraman itzazue bi horiek lehenbailehen". Gogoratzen al duzu hori?

Aitor begira geratzen zaio, urduri.

72

EXT. COSTA VASCA HOTELA. GAUA

Fede hara hona dabil atarian Iñigo agertzen denean.

FEDE

Zer arraio egin duzu hor barruan?

IÑIGO

Gure arazoak konpondu, horixe egin dut.

FEDE

Konpondu? Hau da marka! Norbait epailearen aurrean gezur esatera behartuz? Hiltzaileen maila berean jarriko zara, Iñigo!

IÑIGO

Horixe behar genuke, maila berean!
(AMORRUZ)
Torturatzailleak dira, odol hotzeko hiltzailleak, Fede!

FEDE

Eta gu zer gara gorrotoari gorrotoz erantzuten badiogu?

IÑIGO

Oraindik ez duzu ulertu gerra zikina ez dagoela bakarrik kaleetan! Jende hau epaitegiraino eramateko asmotan dabilela!
(BAKETSUAGO)
Beraien inpunitateari amaiera eman nahi diot.

FEDE

Iñigo, zu ez zabilta justizia bila, mendeku bila baizik.

IÑIGO

(PROBOKATZAILLE)
Beharbada zuri hobeto datozkizu herentziak eta dibortzioak eta, arazo politikoak baino. Ez dakit hau guztia, zera... handi samar geratzen ari ote zaizun.

FEDE

Baliteke... baina niretzat denak ez du balio.

Begietara begiratzen dio, gero buelta erdia eman eta badoa. Iñigo hantxe geratzen da, suminak hartuta.

URTU BELTZERA.

73 **INT. JATETXEA. EGUNA**
(SUPRIMIDA)

74 **INT. IÑIGOREN DESPATXOA. SARRERA. EGUNA**

Atea irekitzen da eta Fede sartzen da maletina eskuan. Ez dago inor begi bistan eta badoa pasilloan aurrera. Iñigorekin ahotsa datorkigu despatxutik, motelduta, telefonoz ari dela dirudi.

IÑIGO (O.S.)

... Noski, fase perizialean oso argi geratu zen, ez du besterik behar... bai, horixe... Bai, aitopen hori kontraesanetan sartzen da txosten perizialarekin eta horri eutsiko diogu. Gainera, ezagutzea-froga oso zalantzagarrria da... bai... beno, horrek ez du esan nahi atzera botako dutenik, jakina...

75 **INT. IÑIGOREN BILERA GELA. EGUNA**

Fede bilera gelara sartzen denean hantxe gelditzen da, ezbaian. Ez dirudi oso pozik dagoenik maletina mahaian jarri eta irekitzen duenean. Bere agenda hartzen du, maletinera sartzen du... Ateko txirrinak hots egiten du tupustean. Eta bigarren aldiz. Fede pasillora agertzen da.

76 **INT. IÑIGOREN DESPATXOA. SARRERA. EGUNA**

Fede sarrera aldera heltzen da, beste inor ez dator erantzutera eta Iñigok telefono-elkarrizketan jarraitzen du, antza. Txirrinak berriro jotzen du eta Fede irekitzera doa. Postaria da, eskuetan paketetxo bat daukana.

POSTARIA

Kaixo...

Fedek paketea hartu eta hartzailea irakurtzen du.

FEDE

A, telefonoz ari da, neuk hartuko dizut.

Postariak agiria eskaintzen dio. Fedek zirriborro bat jarri eta paketea hartzen du.

FEDE (CONT'D)

Gero arte.

Itxi eta pauso bat ematen du pasillorantz.

IÑIGO (O.S.)
 Bai... bai, noski... Beno, hori datorren astean edo... Zu lasai, oraindik alegazioak aurkezteko epe barruan gaude eta...

Bilera gelara sartzen da Fede. Segundo batzuetara LEHERKETA bortitza gertatzen da. Atetik hautsa eta mota ezberdinetako zatiak eta ezpalak irteten dira hegaz. Iñigo pasillora azaltzen da.

IÑIGO (O.S.) (CONT'D)
 Zer izan da, zer...?

77 **INT. IÑIGOREN BILERA GELA. EGUNA**

Iñigo gelara sartzen da. FEDE mahaiaren eta aulkien artean jausita dago, sabelean zauri larriak dauzkala, besoak eta prakak suak hartuta. Iñigo izu laborrian geratzen da.

IÑIGO (O.S.)
 Fede! Dios, Fede, ez, ez...!

78 **INT. ARETO BERRIA. EGUNA**

Senideak aretora sartzen dira eta eseri ere bai, lerrotan eta aurrera begira dauden aulkietan: lau gurasoak, Axun eta Pili gazteagoak, Juan Mari eta Migel Mari. Galdera airean begiratzen diote denek aurreko mahaiaren ondoan zutik zain dagoenari: Amaia da, eta argi dago inork ez zuela hau espero.

Gain-inpresioz: **1997ko Ekaina**

AMAIA
 Egun on denoi. Lehenik eta behin, batzeko toki hau bilatzeagatik eskertzen dizuet. Badakizue gure bufeteak itxita jarraitzen duela eta denok hara hona gabiltzala...

MIGEL MARI
 Barkatu, eta Iñigo zergatik ez da etorri?

AMAIA
 Ez dago oso ondo. Federen heriotza dela eta...

Korapiloa egiten zaio eztarrian, kostata jarraitzen du.

AMAIA (CONT'D)
 Denontzat gogorra izan da baina berak ezin du gainditu. Sentitzen dut baina ez da kasuarekin jarraitzeko gauza izango...
 (MORE)

AMAIA (CONT'D)

Hortaz, nik kargu hartzea proposatu nahi dizuet.

Senideek elkarri begiratzen diote. Gero, etsipenez, Amaiari baiezko keinua egiten diote, poztasunik gabe egin ere.

AMAIA (CONT'D)

Eskerrik asko denoi. Beraz, bilera honen harira joango gara: epaileak sumarioa laster itxiko duela.

JUAN MARI

Beraz, epaiketa ere laster, ezta?

AMAIA

Hala espero da.

Senideen aurpegiak alaitu egiten dira behingoagatik.

AMAIA (CONT'D)

Hala ere... Hara, Iñigok lan izugarria egin du honaino heltzeko: hitzezko judizio bera arrakasta handia izango da, zazpi akusatu dira, gobernuko kideak ere bai... Beste aldetik, ez dago lekuko zuzenik, inork ez baitzuen bere begiez ezer ikusi. Akusatuek, jakina, ez dituzte beren buruak salatuko, eta lekuko gehienak ere beldurtuta daude hainbeste eraso eta mehatxuekin...

Senideak zalantzatsu daude, txarrena aurreikusiz.

AMAIA (CONT'D)

... Baliteke salaketa nagusiak, torturak, erailketa... ezin frogatzea.

JUAN MARI

Galindo eta Elgorriaga libre atera daitezkeela? Joxean eta Joxiri egin zieten guztia egin ondoren?

PILI

Zigorrik gabe geratuko al dira? Hori al da espainiar justizia, estatuko hiltzaileei immunitatea ematea?

AMAIA

Behintzat zigor txikiekin irteteko arriskua dago. Ez bada... ez bada ustekabeko zerbait gertatzen, ez dakit, bat-batean salatuetako batek damutu eta aitortzea.

(MORE)

AMAIA (CONT'D)

Baina, egia esan, ezin dezakegu
halakorik espero.

Aurpegi guztiek etsipena erakusten dute.

79 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. PASILLOA. EGUNA**

Pasilloaren hondoko atea **BRAUST** irekitzen da eta Bayo agertzen da, alboetan polizia banak dakartela. Eskuak lotuta dauzka eta lehen baino itxura txarragoa: zurbil eta argalduta, janzkera ziztrina, pauso ezbaikorra... Jarraian LOPEZ MONTERO bere abokatu berria dator. Bulegoko atera heltzean, polizia batek jo egiten du ireki aurretik...

EPAILE INSTRUKTOREA (O.S.)

Señor Bayo, ha decidido usted
prescindir en esta causa de su
abogado, el señor Argote...

80 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. EPAILEAREN BULEGOA. EGUNA**

EPAILE INSTRUKTOREA

... Su nuevo abogado, aquí
presente, me ha explicado que
quiere usted desdecirse de la
declaración realizada aquí mismo
hace un año. ¿Es eso correcto?

Bayok buruaz baietz egiten du. Epaileaz gain, Lopez Montero, Fiskala era Idazkaria ere gelan daude. Bayok jokabide depresibo samarra erakutsiko du, kostata hitz eginez.

BAYO

Sí, señoría.

EPAILE INSTRUKTOREA

¿Por qué ha decidido cambiar su
declaración ahora? ¿Por qué no
reconoció la primera vez?

BAYO

Por una lealtad mal entendida.
Prometieron ayudarme y ocuparse de
mi situación, pero me han
abandonado. Galindo ha vuelto la
grupa al caballo y nos ha dejado a
Dorado y a mí en el frente.

Bere abokatuari begiratzen dio. Honek baietz egin eta, maletinetik, tolestutako folio bat atera eta Epailearen mahaian jartzen du.

LOPEZ MONTERO
 Como muestra de su absoluta
 voluntad de colaborar, mi
 representado quiere entregarle este
 croquis que ha dibujado él mismo.

Epaileak krokisa ikusi eta begira egiten die, galdera airean.

BAYO
 Es el palacio de La Cumbre.

EPAILE INSTRUKTOREA
 ¿Reconoce entonces haber
 participado en el secuestro y
 custodia de Lasa y Zabala, junto
 con Enrique Dorado, siguiendo las
 órdenes del coronel Galindo?

Bayok adi-adi begiratzten dio.

BAYO
 El capitán Vaquero nos llamó un día
 a Dorado y a mí. Nos dijo que
 quería encomendarnos una tarea de
 vigilancia. Teníamos que custodiar
 a dos etarras que habían sido
 capturados en Francia. Nos mandó
 vestir de civil y después él mismo
 nos llevó al servicio.

81 **INT. FLASHBACK: LA CUMBRE. 2GN GELA. GAUA**

Orain gela erdian balde zabal bat dago, urez beteta. Bayo honen aurrean makurtuta dago norbaiten buruari uretan murgilduta eutsiz. Azken hau belauniko dago, biluzik, eskuak bizkarrean burdinez lotuta dauzkala. Dardarka ari da, ito larrian, burua ateratzeko ahaleginetan, ur azpian zarata gorra eginez. Albo batean Marrero dago begira, eskuetan argazki album bat daukala, ezeroso antzean. Gain-inpresioz:

1983ko Urriaren 16a

Bayok burua altxarazten dio. Joxean da, eta arnasestuka ari da, etsi-etsian. Bayoren keinuari erantzunez, Marrerok albuma ireki eta aurrean ipintzen dio Joxeani

BAYO
 (SEINALATUZ)
 Otra vez: ¿conoces a este? ¿Eh? ¿Y a este?

Joxean ez da hitzik esateko gauza, nahiko lan du arnasten.

BAYO (CONT'D)
 ¿No me oyes? ¿Quiénes son estos, coño?

JOXEAN

Sí... sí...

Edo halako zerbait marmaratzen du Joxeanek arnasa bildu nahian, eta Bayok belarria hurbildu du, irribarreka.

BAYO

¿Que sí, qué?

JOXEAN

No sé... quiénes son esos.

BAYO

¡Me cago en todo!

Bayok burua uretan murgilarazten dio berriro.

MARRERO

Venga, Bayo, vale ya.

BAYO

¿Qué te pasa a tí, marica? ¡Que me está vacilando, joder! ¡Pues a ver quién se ríe más!

Marrero nahigabetuta dago eta gelatik irteten da.

82

INT. FLASHBACK: LA CUMBRE. 3GN GELA. GAUA

Joxi aulki batean eserita dago, bera ere biluzik, gela erdian. Eskuak bizkarrean lotuta. Bi alboetara, zutik, Dorado eta Vaquero. Doradok urez bustitako toalla bat dauka eskuan, Vaquero berriz argazki-album bat. Doradok Joxi belaunean jotzen du toallaz, eta honek garrasi larria egiten du minez. Vaquerok albuma ireki eta aurre-aurrean jartzen dio.

VAQUERO

Mira aquí. ¿Conoces a alguno de estos?

Joxik, minez zotinka eta begiak malkoz estalita, begiratu eta ezetz egiten du buruaz.

VAQUERO (CONT'D)

Venga, chaval, ¿por qué niegas lo evidente? Nosotros sabemos que les conoces, cuanto antes nos cuentes cosas antes podrás volver a Francia.

JOXI

Mentira, es mentira...

Dorado beste kolpe gogor bat ematen dio, oraingoa saihetsean. Joxik oihu lazgarria botatzen du eta burua sama gainera makurtzen zaio, erdi zorabiatuta. Vaquerok azpi-azpian jartzen dio albuma, argazkiak bat seinalatuz.

VAQUERO

¿Ves lo que pasa por ponerte terco?
Pero si tu amigo ya nos lo ha
dicho, hombre, no sigas mintiendo.
A ver, repito: ¿quién es este?

Argazkikoa ez da inongo ezaguna eta ezetz egiten du.
Vaqueroren atzamarrak beste argazki bat seinalatzen du.
Tolosan atxilotuetako bat da.

JOXI (O.S.)

De Tolosa... pero no ha hecho nada.

VAQUERO

Eso lo diré yo. ¿Y este?

Joxik baietz egiten du eta begiak malkoz betetzen zaizkio.

83

INT. FLASHBACK: LA CUMBRE. 2GN GELA. GAUA

Joxeanek baldearen aurrean belauniko jarraitzen du. Buru-
makur dago, baina Bayok bakean utzi du tarte batez, antza.
Horregatik, burua altxatzen du izututa norbait sartzen
denean. Bayo barik Marrero dela ikusita ere, dardarka hasten
da.

MARRERO

Tranquilo, yo no... ¿Estás bien?

JOXEAN

¿Qué sois, policías, o guardias
civiles, o qué?

Marrerok irribarre egiten dio desenkusatu antzean.

MARRERO

Si te lo digo, luego se lo cuentas
a todo el mundo.

JOXEAN

No vais a soltarnos.

MARRERO

Que sí, tío, cuanto antes nos
contéis cosas, antes os iréis.

JOXEAN

Ni siquiera os tapáis las caras.

Marrero ez da gezurretan jarraitzeko gauza. Ezbaian,
alkandora poltsikotik txokolatina bat atera, zati bat moztu
eta Joxeani ahoan sartu dio. Joxeanek ulertu du erantzuna eta
begiak malkoz betetzen zaizkio.

INT. FLASHBACK MUNTAIA: LA CUMBRE. 2GN GELA/3GN GELA. GAUA

3gn gelan Joxi aulkian eserita dago, lehen bezala biluzik. Esku pare batek plastikozko poltsa bat sartu dio buruan, eta ito larrian dago, ero moduan ostikoka eta dardarka. Poltsa kendu diote eta agonikoki arnasten du. Doradok dauka poltsa, Vaquerok berriz argazki album bat.

VAQUERO

Vale, voy a repetirlo, que pareces cortito. ¿Conoces a este?

Albuma aurrean jartzen dio.

JOXI

No.

DORADO

Error.

MOZTU 2gn gelara: Joxean belauniko dago, blaituta, baina aurrean, baldearen ordez argazki album bat dauka.

Garrasika ari da eta burutik behera deskarga baten eraginez astintzen. Eskuak atzean lotuta dauzka. Bayo ere han dago belaun bat zoruan jarrita. Zoruan Farias kaxa bat dago, eta itxitako estalkian honelaxe irakur daiteke eskuz idatzita: **DETECTOR DE MENTIRAS**. Estalkiaren bi alboetatik kable bana irteten dira, muturrak larrututa dauzkatena, Bayok Joxeanen bular-titietatik gertu eusten dituenak.

BAYO

¿Has visto? ¿A que despierta a los muertos? Pues, si no quieres otra, dime: ¿conoces a ese de la foto?

Marrero koadroan agertzen da eta makurtu:

MARRERO

Venga, tío, dinos algo.

Bayok zutitu eta burua makurrarazi egiten dio argazkiaren kontra jarri arte.

BAYO

¡Que quién es ese!

MOZTU 3gn gelara: poltsa atera eta Joxik ito-itoka hartzen du arnasa.

JOXI

Sí... es... sí, Txapela...

VAQUERO

¿Lo ves cómo no era tan difícil? Pues venga, para que la siguiente no te lo pienses tanto.

Doradok poltsa jartzen dio berriro eta Joxi barruan urrumaka hasten da. MOZTU 2gn gelara: Bayo Joxean jipoitzen ari da inongo kontrolik gabe: lehenik muturreko batez zorura eraisten du, gero, han dagoela, ostikoka.

BAYO

Mecagüen tu vida, chaval! O me lo cuentas o te reviento aquí mismo. ¿Quién es el de la foto? ¿Quién, quién, quién?

MARRERO

Bayo, para ya, hostia. ¡Capitán! ¡Capitán!

Bayo ez da konturatzen Vaquero eta Dorado sartu direnik, eusten diotenera arte.

VAQUERO

Para, Bayo, que lo vas a matar... Bayo, quieto... Bayo...

Ahots hau Epailearen ahotsarekin nahasten da:

EPAILE INSTRUKTOREA (V.O.)

Bayo... señor Bayo... señor Bayo...

85

INT. AUDIENCIA NACIONAL. EPAILEAREN BULEGOA. EGUNA

Bayo bere baitatik irteten da. Epailea eta beste guztiak begira dauzka. Orain betilun dago, epaileari aurpegira begiratzea ere kosta egingo zaio.

EPAILE INSTRUKTOREA

Le he hecho una pregunta, señor Bayo: ¿los torturaron?

BAYO

No.

EPAILE INSTRUKTOREA

¿Está completamente seguro? Los cadáveres mostraban bastantes indicios de haber sufrido lesiones y heridas.

Lopez Monterok aurea hartzen dio Bayori.

LOPEZ MONTERO

Mi representado ya le ha dicho que no, señoría.

Epaileak ez du ihardesten.

EXT. FUTBOL ZELAIA. EGUNA

Gazteen (10-12 urte) arteko partidu bat indarrean da. Guraso adoretzu batzuk ari dira animatzen, eta haien artean Iñigo dago, besteak baino isilago badago ere. Amaia agertzen da zelaiko bazter batean eta, Iñigo antzemanda, berarengana dator. Parean jartzen zaio besterik gabe, Iñigo bezalaxe umeei begira.

AMAIA
Nor duzu iloba?

IÑIGO
(SEINALATUZ)
Hamarra.

Amaiak baietz egiten du buruaz, jokalariei begirik kendu gabe. Eten labur bat egiten du.

AMAIA
Itxi da sumarioa. Badaukagu hitzezko judiziorako eguna. Kostata, baina azkenean lortu duzu, e?

(ERANTZUNIK EZ)
Handia, Bayoren aitortpena. Hainbeste komeria lekuko zuzenaren bila gora eta behera, eta hara non. Larrienak aitortu ez baditu ere, meritua da, zurea eta Fede...

Ihes egin dio, baina hala ere erantzunik ez. Orduan tertzioa aldatzea erabakitzen du eta Iñigorengana bihurtzen da.

AMAIA (CONT'D)
Hara, ez dut ulertzen zure jarrera hau! Iñigo, judizio bat prestatu beharra daukazu eta!

IÑIGO
Hor konpon judizioa! Saltsa hori betiko utzi dut.

AMAIA
A, oso erraza, gauzak okertzen direnean, agur eta ospa.

IÑIGO
Zu ondo konponduko zara.

AMAIA
Senideek itxaropen osoa zuregan izan dute eta bazterrean utzi dituzu, Iñigo! Zu ez zara garai batean ezagutu nuen Iñigo bera. Iñigo hark sekula ez zuen amore ematen...

Iñigo berpiztuz joan da eta, gehiago ezinik, eten egiten du.

IÑIGO

Eta hara zertan bukatu ziren nire balentriak! Fedek ohartu zidan eta ez nion jaramonik egin, nire erruz hil zen. Bazterrean geratzen banaiz, askoz hobe denontzat.

AMAIA

Hori sinetsi nahi baduzu, hor konpon. Baina pentsa, Iñigo, Fedek nola ikus nahi zintuzkeen orain: hemen, negarti patetiko hau bihurtuta, ala epaiketari zeure lana egiten, hiltzaileak kartzelara bidaltzeko?

Iñigo, erantzun gabe, begiak zelaian josita dago. Amaiak amore ematen du.

AMAIA (CONT'D)

Nor doa aurretik?

Iñigo, azkenean, Amaiarengana bihurtzen da tutik esan gabe. Beraren begietan amore ematen ari dela nabari zaio. Amaia ere konturatu da, buelta erdia eta urrunduta aurretik.

87 **EXT. AUTOA / MADRILGO KALEA. EGUNA**
(SUPRIMIDA)

88 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. AUZI-GELA. EGUNA**

Tribunaleko mahaian EPAILEA, gizonezkoa, eta beste bi epaile daude eserita, hauetako bat emakumea dela. Mahaiaren aurrean zutik, Fiskala, Iñigo, Lopez Montero Argote eta beste bi abokatu.

ERROTULUA: **Entzutegi Nazionala, 1999ko Abenduaren 13a**

IÑIGO

(SUMINDUTA)

Un ataque de ciática no es ninguna excusa para no presentarse a juicio. Un circo, señorías, eso es lo que ha montado Felipe Bayo.

LOPEZ MONTERO

También ha sufrido un ataque de ansiedad, señorías. Está en el hospital militar, sedado con trankimazin y no tendrá la necesaria coherencia para asistir. Es preciso retrasar el juicio.

IÑIGO

El trankimazin, señor letrado, solo causa ese efecto al principio del tratamiento y Bayo lleva años tomándolo. Señorías, es una simple argucia, pretende que el periodo de prisión preventiva se cumpla antes de que el juicio sea visto para sentencia. No habría más remedio que dejarle libre.

Argote erantzutekotan dago, bera ere haserre, baina Epaileak eten egiten du.

EPAILEA

Ya basta, señores. Felipe Bayo pretende burlarse de este tribunal y suerte tiene de que no lo acusemos de desacato. Ordenamos su comparecencia inmediata...

KATEATU

89

INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. AUZI-GELA. EGUNA

Areto bera orain jendez gainezka dago. Tribunalaren mahaiaz gain, albo bateko mahaian Iñigo, Amaia eta Fiskala. Kontrako alboan, Argote, Lopez Montero eta beste bi abokatuak. Erdian, tribunalari begira eta hiru lerrotan eserita, akusatuak: aurrena, Dorado, dotore eta gominaz orraztuta, kamiseta zuri estua, bularreko giharrak ondo markatuta, metalezko lepokoa eta txamarra beltza. Ondoko aulkia hutsik dago. Bigarren lerroan Vaquero, eta alboan Galindo. Hirugarrenean, Elgorriaga eta Vera. Bi polizia zutik alboetan.

Isiltasuna urratzen da bat-batean. Publikoaren artean zurrumurrua hedatzen da atea ireki eta erizain bat agertzen denean, gurpil-aulki batean Bayo ekarriz, pijama-jaka eta galtzontzilotan, azkenetan dagoen plantak eginez.

EPAILEA

Señor Bayo, será usted atendido por los servicios médicos de la propia Audiencia Nacional y, en adelante, comparecerá ante este tribunal correctamente vestido. Le advertimos seriamente que no vamos a tolerar espectáculos grotescos como este ni un día más. No más interrupciones.

KATEATU

90

INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. AUZI-GELA. EGUNA

Orain lekukoan aulkian Jesus Garcia eserita dago. Iñigo, bere eserlekutik, galdetzen ari zaio. Egotzitakoan inguruan, Bayo orain normal jantzita eta gurpil-aulki batean ikusiko dugu.

IÑIGO

Comisario Garcia, a uno de los cadáveres se le encontró una funda dental que, según la autopsia inicial, no se había hecho en España. ¿Tuvo usted en cuenta este dato en la investigación posterior de mil novecientos noventa y cinco?

JESUS

Sí, señor. Dado que los jóvenes desaparecidos habían vivido en Francia pedimos a las familias... sus informes... que aportaran sus informes... odontológicos...

Bat-batean isiltzen da. Zurbil jarri da eta esku bat bularrera eraman du, minak jota. Iñigori begiratzen dio, ezin sinetsiko balu. Segidan, eta hitzik gabe, zerraldo erortzen da. Bat-bateko iskanbila hedatzen da aretoan, mundu guztia zutik jartzen da, batzuk laguntzeko, hobeto ikusteko bestek. Dorado berehala hurbildu eta bihotzeko masajea ematen hasi zaio, jende mordo baten inguruan. Epaileak txilina jotzen du arreta erakarri nahian.

EPAILEA

Silencio, silencio en la sala!
Llaman a los servicios médicos,
rápido! Y desalojen la sala.

Polizia bat ziztuan irteten da bestek jendea uxatzeari ekiten dion bitartean. Alferrik dira ahaleginak eta denen adierazpenetan nabari dago: hil da. Amaia, erabat erasanda, Iñigori begira dago, hau berriz eszenari adi-adi dagoela.

91

INT. MUNTAIA: ENTZUTEGI NAZIONALA. AUZI-GELA. EGUNA

Lekukoan aulkian VELAZQUEZ dago. Irmo agertzen saiatuta ere, begiek ihes egiten diote, noizean behin, egotzitakoan aulkietara. Iñigo ari da galdezka.

VELAZQUEZ

No.

IÑIGO

Señor Velazquez, ¿niega usted entonces que en aquella reunión el coronel Galindo los reclutara para realizar acciones ilegales en Francia?

VELAZQUEZ
(KOSTATA ERANTZUTEN DU)

Sí.

IÑIGO
¿Fue usted detenido y acosado por
compañeros guardias civiles? Afirmó
haber recibido dos balas en su
buzón. ¿Ha sido amenazado de muerte
antes de venir a este juicio?

VELAZQUEZ
No deseo contestar a esa pregunta.

TARTEKATU: Doradok, Galindok eta Elgorriagak elkarri
begiratzen diote, gero eta seguruago.

PABLO C
No... Nadie me dijo que agentes de
Intxaurrondo hubieran matado a Lasa
y Zabala.

IÑIGO
¿Cambia usted su declaración
anterior debido a la terrible
agresión y las amenazas de muerte
que sufrió?

PABLO C
No quiero responder a eso.

IÑIGO
¿Le entregó Felipe Bayo una bolsa
con armas requisadas a ETA, que
utilizaba en sus acciones ilegales?

OLIVAR
No recuerdo tal cosa.

IÑIGO
Pero usted lo declaró ante el juez.

OLIVAR
No... no sé, sería una invención
mía... no estoy bien, tengo
problemas psíquicos...

Egotzitakoen artean, poztasuna gero eta argiagoa da.

VAZQUEZ AIRA
No.

BARRANCO
No recuerdo tal cosa.

LOPEZ GUTIERREZ
No.

Iñigo Amaiarengana bueltatzen da eta begirada adierazgarria bidaltzen dio: ez du batere gustukoa gertatzen ari dena. Berriro lekuko en aulkira itzultzen da...

92

INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. AUZI-GELA. EGUNA

Iñigo aurrerantz bueltatzen denean, aulkian Bayo dago orain. Minez dagoen plantak egingo ditu etengabe eta doinu lastimagarriaz erantzungo du.

BAYO

Pido disculpas a los demás acusados por mis imputaciones falsas, de las que me arrepiento profundamente.

IÑIGO

Pero, señor Bayo, usted declaró ante el juez haber custodiado e interrogado a Lasa y Zabala en el palacio La Cumbre, junto con Vaquero y Dorado y por orden del coronel Galindo. ¿Se retracta de esas afirmaciones?

BAYO

Sí... Vucencias, lo hice por el bien de mi familia. Estoy muy mal, tomo mucha medicación...

IÑIGO

Y La Cumbre... Usted dibujó un croquis muy detallado, conocía perfectamente el lugar.

BAYO

Salió el plano en una revista y lo copié, y también leí la declaración de Lopez Carrillo sobre el palacio. Es que la gente piensa que los guardias civiles no tenemos cultura, pero es falso. Como decían los clásicos, "la felicidad del hombre está en saber usar su razón y su intelecto".

Zurumuru bat dago. Lopez Montero lotsatuta dago, Argotek flipatu bati bezala begiratzen dio. Iñigok, berriz, burua makurtzen du, hasperenka, Epaileak txilina jotzen duen bitartean. Jendea zutitzen hasi da. Elgorriaga, Dorado eta Galindo, taldetxo batean txutxu-mutxuka, pozarren daude.

93

INT. MADRILGO KAFETEGIA. EGUNA

Iñigo eta Amaia Entzutegetitik gertuko kafetegi batera heltzen dira. Senideak zain daude eta, haien adierazpenak ikustean, kezka nagusitu egiten da.

MIGEL MARI

Ez du itxura onik, ezta?

IÑIGO

Egia esateko, ez. Alde batetik, hau espero zitekeen, baina hala ere...

AXUN

Esan nahi duzu, lotsagabe horren erruz denak zigorrik gabe geratuko direla?

Iñigok hasperen egiten du. Amaiak erantzuten du beraren orde.

AMAIA

Beno, entzun diozue, tipo hori ez dago burutik sano, barregarri geratu da. Baina epaileek zirt edo zart egin beharko dute gaurko aitortpena ala lehenengoa sinesten duten.

JUAN MARI

Beraz, geratzen direnek salaketa konfirmatzea behar dugu, ezta?

IÑIGO

Hala da, Txofo konfidentea geratzen da. Horrek bere deklarazioari uko eginez gero... gureak egin du.

PILI

Eta kamareroa. Costa Vasca hotelekoa. Hori ere geratzen da.

Erantzuteko keinu erdian gelditzen da Iñigo. Amaiak ezeroso jarri dela nabaritzen du.

94

INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. AUZI-GELA. EGUNA

Mundu guztia zutik jartzen da epaileak sartzean.

EPAILEA

Proseguimos con la fase testifical. Recuerdo a las partes que continúa el turno de la acusación particular.

(IRAKURRIZ)

Que pase el testigo... Aitor Aldanondo.

Iñigok tente jarri eta publikoarengana begiratzen du, senideengana. Haien itxaropena nabaritzen du. Ezbaian dago.

IÑIGO
(BAT-BATEKO ERREAKZIOAN)
¡Con la venia, señoría!

Bere paperetara begiratzen du. Goikoan "**AITOR ALDANONDO**" irakur daiteke, galdera-zerrenda baten buruan. Hori baztertu eta azpia agerian geratzen da "**PEDRO MIGUELIZ TXOFO**" izenaz.

EPAILEA (O.S.)
¿Señor letrado?

IÑIGO
(BERE SENERA ITZULIZ)
Mis disculpas, señoría. La acusación particular renuncia al testigo Aitor Aldanondo.

Zurrumurru bat datorkio ikusleengandik. Amaiaren txundidura ere nabaritzen du. Kontrako aldean, Argotek irribarre burlatia eskaintzen dio. Epaileak bere paperak aztertzen ditu.

EPAILEA
En tal caso, llamen al testigo Pedro Migueliz.

Amaiaren begietan ezustea islatuta dago oraindik Iñigok "Aitor Aldanondo" orrian helarazten dionean. Orduan, ulertu ez ezik bere berma adieraziten dio begiradaz.

95

INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. AUZI-GELA. EGUNA

Zenbait minutu igaro dira. Orain lekukoen aulkiaren aurrean panel bat jarrita dago. Hori dela eta, ezin dugu ikusi atzeko atetik sartu eta han esertzera doan lekukoa.

ARGOTE
Con la venia del tribunal. Quiero protestar por que el testigo declare detrás de una mampara...

Panelaren ostean Pedro Migueliz Txofo dago, terno gris dotoreaz jantzita. Bere erantzunetan erdi totelka jardungo du, hortzartean. ON eta O.S. tartekatuz ibiliko gara.

ARGOTE (O.S.) (CONT'D)
No le encuentro ninguna justificación teniendo en cuenta que su foto ha salido en varios medios de comunicación en relación con el caso.

EPAILEA

Al señor Migueliz se le ha permitido declarar así debido a que sufre de epilepsia y ante el riesgo de que la confrontación con los acusados le provoque una crisis.

ARGOTE

Sí, señoría.

Etsipenezko keinua egiten du, hala ere.

EPAILEA

Es el turno de la acusación particular.

Iñigok bere paperak aztertzen ditu lehenengo galdera bila.

IÑIGO

Señor Migueliz, sus amigos lo conocen por el apodo de Txofo. ¿También los acusados Dorado y Bayo lo llamaban así?

TXOFO

Sí, señor.

IÑIGO

Es decir, que mantenía con ellos una relación estrecha. De hecho, salían juntos de fiesta y tenían negocios en común. Por uno de ellos, el contrabando ilegal de tabaco, cumplió usted condena junto con Dorado.

TXOFO

Sí, es cierto.

IÑIGO

Y, fruto de esa familiaridad, Enrique Dorado le confió un diario...

(ETEN EGITEN DU, UNE
TRASZENDENTEA DA)

en el que hablaba de Lasa y Zabala.

TXOFO

No, de eso no hablaba.

IÑIGO

¿Pero no declaró ante el juez, además, que había fotos de Lasa y Zabala desnudos y amaratados?

TXOFO

No, eso no lo vi.

IÑIGO
¿Dónde está el diario, señor Migueliz?

TXOFO
Yo no lo tengo. No sé qué fue de él.

Iñigo nahasita dago, zer egin ezean. Gerra galduta dagoela dirudi. Begirada senideengana joaten zaio.

TXOFO (O.S.) (CONT'D)
Pero Dorado me contó todo lo que hicieron.

Zurrumurrua. Iñigo txundituta baita berpiztuta ere.

IÑIGO
¿Qué le contó exactamente?

TXOFO
Todo lo que les hicieron a esos chavales, Lasa y Zabala.

Zurrumurru indartsuagoa. Iñigok Amaiari begiratzen dio, itxaropentsu.

IÑIGO
¿Puede repetirlo aquí, señor Migueliz?

TXOFO
Sí, señor. Yo era el encargado de la vigilancia en la zona donde se descargaba el tabaco, normalmente en las laderas del monte Igeldo...

96 **EXT. FLASHBACK: IGELDOKO ITSASAURREA. GAUA**

Itsasoaren gaineko kala ezkutu bat da.

ERROTULUA: IGELDO INGURUA, DONOSTIA, 1985

Dorado autoaren aurre aldean bermatuta dago, makurtuta, botila batetik zurrutatzen. Txofo ia kokoriko, asper eginda, itsasora begira.

TXOFO (V.O.)
... Durante las largas esperas nocturnas, desarrollé una relación de amistad, en especial con Dorado. Eran largas conversaciones regadas con alcohol y cocaína.

Doradok botila rona eskaintzen dio Txofori.

DORADO

¿Qué? ¿Se ve, o no se ve, la vida de otra forma?

TXOFO

Algunos sí que la veis de otra forma, no te jode. Con el pastón que os levantáis, que a otros solo nos queda la calderilla.

DORADO

Qué quieres, es lo mínimo por toda la mierda que nos toca limpiar.

TXOFO

¿Qué mierda?

Doradok jostalari begiratzen dio eta barreka hasten da.

DORADO

Ja ja, qué curioso eres, maricón...

Botila berreskuratzen du. Mozkorra dago.

DORADO (CONT'D)

Pues ahí va una mierda muy grande: ¿Recuerdas aquellos dos etarras que desaparecieron hace un par de años?

TXOFO

¿Los de Baiona? Ah, sí, ¿cómo eran esos? Lasa y Zabala, ¿no?

DORADO

Pues lo hicimos nosotros, Pedrito. Fuimos al otro lado y nos los trajimos al palacio de La Cumbre. Con dos cojones.

TXOFO

No jodas, Kike, ¿Secuestrados?

Dorado dibertitzen ari da eta, erantzun aurretik, beste trago bat hartzen du.

DORADO

Je je... sí, y les sacamos lo que quisimos a base de hostias. Les pusimos finos.

97

INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. AUZI-GELA. EGUNA

IÑIGO

¿Le dijo también el señor Dorado quién les había dado la orden de secuestrarlos e interrogarlos?

Txofok zerbait marmaratzen du, baina ez zaio ulertzen.

EPAILEA

Señor Migueliz, ¿puede hablar más alto? Si no se encuentra bien podemos tomar un descanso.

TXOFO

No, estoy bien... Sí... Dorado me dijo que se lo había ordenado Galindo (...) Y que el gobernador Elgorriaga había cedido el palacio.

Aipatuen erreakzioak txandakatuta, lehenik Galindo, gero Elgorriaga. Lehengo harrokeria beldur bihurtzen hasi da.

IÑIGO

Señor Migueliz... ¿Le contó Enrique Dorado lo que hicieron con los secuestrados después de interrogarlos?

Zurrumurru arin bat hedatzen da gelan eta Epaileak txilina jotzen du. Senideak tente daude, aitorpenari adi. Isiltasuna nagusitzen da erabat.

TXOFO

Sí...

98

EXT. FLASHBACK: ZULOA. FOYAS DE COVES. BUSOT. GAUA

Maletategi bat **LEHEN PLANOAN** ixten da, kolpez itxi ere (1. sekuentzian bezala).

Joxi eta Joxean ilunpean gora antzematen den argitarantz doaz nekez, aldapa batean gora eta eskuak atzean lotuta, zaindariak inguruan doazela. Hurbilagotik, argia landrover batena dela nabari da. Baita metalak lurra jotzearen zarata erritmikoa entzun ere, alegia. Bi gizon, pala banaren laguntzaz, lurra zulatzen ari dira. Zulo ondoan bizpahiru zaku daude, "**cal viva**" errotuluarekin. Bayok eta Doradok gazteen esku-burdinak askatzen dituzte.

VAQUERO

Venga, y ahora a quitarse la ropa.

Bi gazteak ikaratuta daude, lehen ez badute konprenitu orain bai.

JOXEAN

No, no, por favor, por favor...

BAYO

¡Calla la puta boca, chaval!

Joxeanen alkandoratik tiraka hasten da urratu arte. Orduan bi gazteak erantzten hasten dira, etsi-etsian eta, hala egin ahala, gorputz, beso eta hanketan dauzkaten partxe, benda eta ubeldurak agerian geratuko dira. Zuloako bi gizonek palak kanpora botatzen dituzte eta zulotik irteten dira. Joxi negarrez ari da, eta ikusten du nola Doradok Joxeanengana hurbildu eta ahoa zintaz estaltzen dion, eta segidan begiak ere bendaz buelta batzuk zakarki eginez.

DORADO

¡Venga, coño, que no tenemos toda la noche!

Joxik burua makurtzen du Joxeanen sorbaldan jarri arte, agur isil antzean. Handik banatzen dutenean indar eginez hasten da, eta Bayori eta Marrerori kostatzen zaie menperatzea.

BAYO

Mecagüen tus muertos, ¿me vas a joder a mí, eh? ¿Me vas a joder a mí?

Vaquerok Joxeani eutsi eta zulo aldera darama. Orduan pistola bat ateratzen du txamarratik eta, kanoitik eutsirik, Marrerori eskaintzen dio. Browning markakoa da.

VAQUERO

Te ha tocado, Marrero.

Marrerok izututa begiratzen du pistola, buruaz ezezka.

VAQUERO (CONT'D)

Cagüen la puta, es una orden, la cumple o la cumple.

Bayo, Dorado eta besteak, Marrero zurbilduaren erantzunari begira daude. Eta honek azkenean erantzuten du:

MARRERO

No, mi capitán... Yo no les disparo.

Vaquero amorrutik begira ari zaio Marrerori, zer egin erabaki nahian. Bat-batean, Dorado aurreratzen da eta pistola hartzen du, Marrerori mespretxuz begira.

DORADO

¡Cagado de mierda!

Doradok tiro egiten dio Joxeani garondoan eta hau zerraldo erortzen da zuloan. Joxi izuak elbarrituta dago.

Tiroaren oihartzuna auzi-gelaren jabe egin da eta publikoa, denak aldi berean, asaldatu egiten dira tiroa hantxe bertan izan balitz moduan. Senideen artean, bat baino gehiago malkoei eutsi ezinik dabil.

100 **EXT. FLASHBACK: ZULOA. FOYAS DE COVES. BUSOT. GAUA**

Joxiri hanka-tartetik txizazko tantak erortzen ari zaizkio oinetaraino, odolaz nahasita, Bayo zintaz lotzera iguratzen zaionean. Gazteak "ama" murmuriatzen du mututurik geratu aurretik. Begiak ere bendatzen dizkiote eta orduan Doradok, atze-atzean kokatuta, pistola garondoan jartzen dio. Joxik burua bular gainera makurtzen du. Doradok tiro egiten du eta Joxi belauniko erortzen da, ahotik odola barra-barra dariola bendak eta sama ere erabat busti arte. Doradok birao egiten du erratu izanagatik eta kainoia hurbilduta beste tiro bat egiten du. Joxi seko erortzen da.

Marrerok, autoaren ondoan, ezin du jasan eta bizkar egiten du.

VAQUERO

Hala, currad un poco, que no estamos de excursión.

Bayo eta beste bi gizonak zulora sartzen dira eta Doradorekin batera Joxeanen gorpuari eutsi eta ondo kokatzen dute Joxiren gainean, elkarri begira eta elkarren alderantziz. Marrerok ez du zirkinik egin, izuak eraginda, Bayok ondoan agertu eta arropa piloa botatzen duenean.

BAYO

¿Qué te pasa, imbécil? Eran unos putos etarras, hostia.

Besteak, bitartean, zulo ertzeko zakuak hartuta, edukia gorpuen gainera jaurtikitzen hasi dira. Kare bizia, alegia.

101 **INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. AUZI-GELA. EGUNA**

Senide batzuk, besteak beste amak, Axun eta Pili, negarrez ari dira. Den-denak salatuen eserlekuetara begira, denak ahopetik berbatan. Epaileak txilina jotzen du berriro.

EPAILEA

Silencio en la sala. Silencio en la sala.

Jendea isiltzea lortzen du.

EPAILEA (CONT'D)

Puede retirarse el testigo. Con esto, se declara finalizada la fase testifical. Se levanta la sesión.

Epaileak zutitzen direnean, publikoak ere berdin egiten du.

102 **INT. IÑIGOREN DESPATXOA. EGUNA**

Iñigo despatxoan da, alkandora hutsean, telefonoz hitz egiten ari. Udako argi bizia leihoetatik sartzen da.

Hilabeteak igaro dira. Amaia sartzen da, atean hatz-koskorrez jo ostean eta, ikustean, Iñigok aurikularra estaltzen du.

IÑIGO

Bai... ulertzen dut, bai... barka unetxo bat.

(AMAIARI)

Esan.

AMAIA

Entzutegiko zitazioa iritsi da.

IÑIGO

Joxean eta Joxirena?

(AMAIAK BAIETZ EGITEN DU)

Bazen garaia!

AMAIA

Bai, badugu epaia, antza denez.

IÑIGO

(SERIO ETA PENTSAKOR)

Konforme, milesker.

AMAIA

Senideei zuk deituko al diezu?

IÑIGO

Bai, noski.

(AMAIA BADOA ETA

TELEFONOARI)

Zu, barka, moztu egin beharra daukat, gero hitz egingo dugu...
Agur.

Eseki eta bere baitan bilduta geratzen da, adia galdurik.

103

INT. ENTZUTEGI NAZIONALA. AUZI-GELA. EGUNA

Epaituak zutik daude euren eserlekuen aurrean, azken epaiak entzuten. Kamera haien aurpegietan zehar PAN egiten ari da.

EPAILEA

Debemos condenar y condenamos, en aplicación del Código Penal, texto refundido de mil novecientos setenta y tres, a José Julián Elgorriaga Goyeneche, como autor de dos delitos de asesinato con la agravante de prevalecerse del carácter público, por cada uno de ellos, a la pena de 28 años y 6 meses de reclusión mayor, y como autor de dos delitos de detención ilegal, a la pena de 7 años de prisión mayor, con la accesoria de inhabilitación absoluta y suspensión de cargo público y al pago de las costas proporcionales..

Aurreko dialogoa amaitze aldera, gain-inpresioz:

71 urteko kartzela zigorra

Kamerak orain Galindo erakusten digu.

EPAILEA (O.S.) (CONT'D)

Enrique Rodríguez Galindo, como autor de dos delitos de asesinato, por cada uno de ellos, a la pena de 28 años y 6 meses de prisión mayor, y como autor de dos delitos de detención ilegal, a la pena de 7 años de prisión mayor..

Eta gain-inpresioz:

71 urteko kartzela zigorra

Vaqueroren planoan, gain-inpresioz haxe ikusten dugularik:

69 urteko kartzela zigorra

EPAILEA (O.S.) (CONT'D)

Ángel Vaquero Hernández, como autor de dos delitos de asesinato, por cada uno de ellos a la pena...

Epailearen ahotsa galduz joan da, beraren gainean JAIME OTAMENDIRENA gailendu ahala:

JAIME (V.O.)

Ángel Vaquero kapitainak, hirurogeita bederatzi urteko zigorra jaso zuen...

Doradoren planoan, eta gain-inpresioz:

67 urte, 8 hilabete eta 2 eguneko kartzela zigorra

JAIME (V.O.)
 Enrique Dorado Villalobosek,
 hirurogeita zazpi urte...

Azkenik, Bayoren plana eta gain-inpresioz:

67 urte, 8 hilabete eta 2 eguneko kartzela zigorra

JAIME (V.O.)
 Eta Felipe Bayo ere hirurogeita
 zazpi urte.

104 **EXT: MUNTAI PARALELOA: HILERRIA/TOLOSAKO MONOLITOA. EGUNA**

Iñigo hilerrri bateko kaleen artetik dator...

JAIME (V.O.)
 Eta, hala ere, Julen Elgorriaga
 kartzelan urtebete egon zen...
 Rodriguez Galindok lau urte bete
 zituen eta gero irten, zigorra bere
 etxean konplitzeko... Enrique
 Doradok eta Felipe Bayok seina
 urteko zigorra konplitu zuten,
 horietatik lau erregimen irekian...
 Vaquero ere urte gutxiren buruan
 irten zen gartzelatik.

Iñigo hilarri baten aurrean gelditu da. **DETAILEA:** hilarrian
 "Federico Arregi / 1971 - 1997". Iñigok paper batzuk
 ateratzen ditu maletinetik eta hilobian uzten ditu. Azalaren
 goiko aldean hauxe irakur daiteke: "Sumario nº 15/95", eta,
 beheago, "SENTENCIA"...

JAIME (V.O.)
 Epaitegi Nazionalak kondenatu
 zituen, Auzitegi Gorenak zigorra
 berretsi zuen. Konstituzionalak ere
 berriro konfirmatu zuen. Eta
 Estrasburgoko Giza Eskubideen
 Auzitegiak ere denak erruduntzat jo
 zituen.

Iñigo urrunduz doa hilarrien artetik.

105 **INT. IRRATI GELA. EGUNA**

JAIME OTAMENDI, Axun eta Pili lokutorio batean mahai inguruan
 eserita, elkarrizketa batean.

Gain-inpresioz "2012" irakur daiteke.

JAIME
 Axun Lasa eta Pili Zabala, urte
 mordotxoa igaro da eta gauzak
 nahiko aldatu dira Euskal Herrian.
 (MORE)

JAIME (CONT'D)

Orain posible da alde bateko eta besteko biktimak elkartzea eta elkarren ikuspegiak trukatzeara.

AXUN

Bai, nik gauza garrantzitsu bat ikasi dut: herri honetan ez dugula normaltasunik izango batak bestearen mina ulertu eta aitortu arte eta min guzti guztien aitortza eta mahai gainean altura berdinean jartzeko gai ez garen arte.

PILI

Koraza bat jantzita bizi izan gara. Denok, bi aldetakook, bidegabekeria asko justifikatu ditugu.

JAIME

Inoiz imajinatu al duzue zein izango zen zuen anaien azken pentsamendua?

PILI

Nik beti sinetsi dut bere azken pentsamendua amarentzat izan zela.

JAIME

Pili eta Axun, desio bat Euskal Herriarentzat?

AXUN

Denok ados ez bagaude ere, zeinek bere bidean jarrai dezala, baina errespetutik.

PILI

Ez diezaiola inork inori irribarrea ezpainetatik kendu. Hau ez dadila sekula berriro gertatu.

Bera ere hunkiturik, teknikariari esku-keinua egiten dio Jaimek.

JAIME

Unetxo bat eta berehala gatoz.

URTU BELTZERA

Beltzean, gain-inpresioz eta azken kredituak hasi aurretik, hauxe irakurtzen da:

Film honetan azaltzen den guztia benetako gertaeretan oinarrituta dago. Bakarrik pertsonaia batzuk fikzionatu dira dramaturgiaren alde.